


OROITIDAZKIA



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa

Agencia Vasca de
Protección de Datos

Edizioa:

Ale-Kopurua: 750 ale

© Datuak Babesteko Euskal Bulegoa

Argitaratzailea: Datuak Babesteko Euskal Bulegoa

Internet: www.avpd.es

Inprimatzailea: mccgraphics

L.G.: VI-436/07

Jabego Intelektualaren Eskubideak babesten du lan hau. Gordeta daude Legeak babesten dituen eskubide guztiak, bai eta itzultzeko, berriro inprimatzeko, irratiz, telebistaz edo internetez (web orria) hedatzeko, fotomekanikaren bidez edo beste edozein eratarik koopiatzeko eta datuak prozesatzeko instalazioetan gordetzeko eskubideak ere, nahiz eta lanaren zati bat izan.

Aurkibidea

Orria

1. AURKEZPENA	5
1.1. KONTROLATZEAREKIN BATERA, ADMINISTRAZIOEI LAGUNDU EGIN DAKIEKE ETA LAGUNDU EGIN BEHAR ZAIE.	5
1.2. ESKUBIDE GUZTIAK DIRA GARRANTZITSUAK.	7
1.3. GARAI BERRIAK, ARRISKU BERRIAK. ERNE EGON GAITEZEN MEHATXU BERRIEN AURREAN.	7
2. ERAKUNDEEKO HARREMANA ETA KOMUNIKAZIOA	11
2.1. DBEBREN ZUZENDARIA EUSKO LEGEBILTZARREAN AGERTZEA.	11
2.2. IRUDI KORPORATIBOA.	12
2.3. WEB ORRIAREN BERTSIO BERRIA.	12
2.4. HITZARMENAK	12
2.5. NAZIOARTEKO FOROETAN ESKU HARTZEA.	15
2.6. DATUEN BABESAREN ALORREKO ESTATU ESPAINIARREKO BESTE HAINBAT BULEGOREKIKO KOLABORAZIOA.	19
2.7. DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO HITZALDI, MINTEGI ETA BESTELAKO JARDUERETAN ESKU HARTZEA.	20
2.8. DATUAK BABESTEKO ESPAINIAKO BULEGOAREN PARTE-HARTZEA KONTSEILU AHOLKU-EMAILEAN	21
2.9. DBEB BERE ESKUMENAREN PEKO ERAKUNDEEI AURKEZTEKO KANPAINA.	21
3. DATUAK BABESTEKO EUSKADIKO ERREGISTROA	26
3.1. DATUAK BABESTEKO ERREGISTROKO INSKRIPZIOAK. DATUAK ETA KOADROAK.	26
3.1.1. Informazioaren jatorria.	26
3.1.2. Inskripzio-eskabideak	27
3.1.3. Erakunde aitortzaileak	27
3.1.4. Inskribatutako fitxategiak	29
3.1.5. Inskribatutako fitxategiak erakundeka xehatuta.	31
3.1.6. Inskribatutako fitxategien segurtasun-mailak.	31
4. AHOLKULARITZA JURIDIKOA ETA IKUSKARITZA	35
4.1. OROKORKI.	35
4.2. KONTSULTA-FUNTZIOA	35
4.2.1. Irizpenak	35
Datuak lagatzea estatistika-funtzio publikorako.	36
Erroldako datuak lagatzea	37
LOPDren 11.2 c) artikuluko datuak lagatzea	37
Hildako pertsonen datuak lagatzea	38
Datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidearen eta politikan parte hartzeko eskubidearen artean dagoen erlazioa	38

4.2.2.	Txostenak	39
4.2.3.	Aholkularitzazko bilerak, e-mailez eta telefonoz zein aurrez aurreko kontsulten erantzuna.....	40
4.3.	KONTROL-FUNTZIOA.....	40
4.3.1.	Babes-espedienteak	40
4.3.2.	Salaketak	41
4.3.3.	Lege-hausteen espedienteak.....	41
5.	IDAZKARITZA NAGUSIA	45
5.1.	GIZA BALIABIDEAK	45
5.1.1.	2006ko aurrekontu-plantilla.....	45
5.1.2.	Lanpostuen balorazio-prozesua eta zerrenda.	45
5.1.3.	Lanpostuak betetzeko deialdiak	46
	Izendapen Askeko deialdia	46
	Merezimendu bidezko Lehiaketaren deialdia.	46
	Zerbitzu-eginkizunen deialdia.	48
5.1.4.	2006ko ekitaldian lanean jarduten duten langileak	49
5.2.	AURREKONTUAREN, KONTABILITATEAREN ETA ONDAREAREN KUDEAKETA.....	49
5.2.1.	2006ko aurrekontua.....	49
5.2.2.	2006ko aurrekontuaren exekuzioa	51
5.2.3.	Aurrekontuen kudeaketari buruzko Instrukzio batean lanean	52
5.3.	BALIABIDE MATERIALAK.....	52
5.3.1.	Egoitza	52
5.3.2.	Beste zenbait kontratu txiki.....	52
5.4.	IDAZKARITZA NAGUSIAREN BESTE ZENBAIT JARDUERA	53
6.	KONTSEILU AHOLKU-EMAILEA.....	55
6.1.	EGINDAKO BILERAK.....	55
7.	ERANSKINAK	57
I. ERANSKINA.	DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOA ZIFRATAN	57
	Erregistroaren bilakaera historikoa	57
	Fitxategien Mugimenduei buruzko datuak	58
	Fitxategien Arduradunei buruzko datuak	59
	Inskribatutako fitxategiei buruzko datuak.....	61
	Kontsulta eta txostenei buruzko datuak.....	68
	Kontrol lanari buruzko datuak	69
	Aurrekontua gauzatzeari buruzko datuak	71
II. ERANSKINA.	2006. URTERA ARTE EGINDAKO TXOSTEN ETA IRIZPEN GARRANTZITSUENAK	75
	2005. URTEA	75
	2006. URTEA	76

1. Aurkezpena

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren hirugarren oroitidazki honen aurkezpenean, erakunde berria izanik, maiz egiten ditugun barne-hausnarketa batzuk azaleratu nahi nituzke. Gure jarduera proaktiboa aipatuko dut, datu pertsonalen babeserako eskubidearen eta oinarritzko beste eskubide batzuen bateratzea eta baita teknología-garapen berriek datu pertsonalen babeserako eskubideari ekarri dioten etengabeko mehatxua ere.

1.1. Kontrolatzearekin batera, administrazioei lagundu egin dakieke eta lagundu egin behar zaie

Batzuek, lotespen positiboaren printzipioari hitzez hitz jarraiki, administrazio edota administrazio-organismoek legeak dioenez egin behar dutena bakarrik egin behar dutela defendatzen dute, hau da, legegileak hasieratik edo etorkizunean azkenean egin ahal izango diren ekintza guztiak pentsatuta zituela uste dute.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoan, eta baita bere Kontseilu Aholku-emaitzean ere, biziki eztabaidatu da Bulegoak bere aulkian “eserita” geratu behar duen salaketak edo txosten-eskaerak iristeko zain edo, alderantziz, “etxetik irten behar dugun” administrazio publikoen eta, aurrerago, herritarren beraien artean datu pertsonalen babeserako eskubidearen sustapen-ekintza bat burutzera.

Erabakia hartzea ez da erraza izan, bi jarrerak sendotzen dituzten eta guk aztertu ditugun argudioak dituztelako. Horrela, pentsa daiteke Bulegoak administrazioekin lankidetzan lan egiteak haiek gauzak nahastera eraman ditzakeela, ez bailukete ulertuko funtzio bikoitz hori: alde batetik, laguntzea, eta bestetik, arau-haustea kontrolatu-ikuskatu-adieraztea. Argudio horretan sakonduz gero, Bulegoaren gaizki ulertutako proaktibitate batek administrazioei datuen babesa “beren zeregina ez dela” pentsarazi diezaieke, alegia egiteko hori Bulegoarena berarena bakarrik dela pentsarazi diezaieke. Bestalde, errealitatearen aurrean ezin dugu ez ikusiarena egin, eta errealitatea da datuen babesa oso gutxi ezagutzen den eskubidea dela. Azterlan gutxi egin dira gai horri buruz eta egindakoek erakusten digutenaren arabera, herritarrek ez dute ezagutzen berea duten eskubidea eta ez dakite kontrol-agintaritzak daudela. Administrazioen barnean, gai honekiko sentsibilizazio-maila gutiz aldatzen da batetik bestera. Ziurtasunez esan daiteke Euskadiko administrazio publikoen kopuru handi batek bere betebeharrak formalak betetzen dituela (fitxategiak sortu eta aitortzea), gutxiagok legeak ezartzen dizkien gainerako betebeharrak betetzen dituztela eta oso gutxi direla beren administrazio-jarduera osoa lotzen duen zeharkako ardatz gisa datuen babesa duten “antolaketa-jokabide” batzuk ezarrita dituztenak.

Bada, DBEBk garbi du atearak zabaldu eta kalera irten behar duela. Horretarako lehenik “atez ateko” kanpaina bat egin du bere eskumenen artean dauden administrazioetan. 2006. urtean Eusko Jaurlaritzaren sail guztiak, haien erakunde autonomiadunak, foru-aldundiak, Legebiltzarra eta hiru lurralde historikoetako batzar nagusiak, Herri Kontuen Euskal Epaitegia, Lan Harremanen Kontseilua eta Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua bisitatu zituen; eta 2007. urtean jarraipena izango duen udaletara bisitak egiteko kanpaina bati ekin dio. Arduradun politiko eta teknikoengana hurbildu gara nor garen, zer egiten dugun esateko, bete behar duten araudia azaltzeko eta beraiek beren eguneroko kudeaketan aplikatzeko aurki ditzaketen zailtasunak entzuteko.

Baina ez hori bakarrik, aldi berean DBEBk bi lan-talderen sorrera bultzatu du (Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta EUDELekin) erakunde horien barruan datu pertsonalen babesari lotutako jarduerak eta jokabideak ezagutu eta eztabaidatzeko, kasuistika sarriena ezagutzeko, eskubide horren aplikazioak beste batzuekin izan ditzakeen “aurkakotasunak” jakiteko, eta araudia aplikatu behar den errealitate zehatzetara “egokitzea” ekarriko duten jardunbide egokien arautegiak edo gidaliburuak proposatzeko. Esperientzia horiek emaitza onak dituzten neurrian beste esparru batzuetara hedatzen saiatuko gara.

Eta ez hori bakarrik, gainera, administrazioen barnean eta hauetatik kanporantz datu pertsonalei lotutako informazioaren zirkuituei dagozkien jokabideak eta jarduerak ere aztertuko ditugu, langile publikoen jokabideetan benetako aldaketak proposatzeko. Ildo berean, eta osagarri gisa, normalean administrazioetan egiten diren jarduera-motei dagozkien sektorekako ikuskapenak egiteko prozedurak zehazten hasi gara. Dagokion sektorean datuen babesaren egoera zein den diagnostikatu eta, hala dagokionean, hobetzeko neurriak proposatzeko aukera emango digute ikuskapen horiek.

Zirkulua helburu bikoitza duten hedapen-kanpainei itxi beharko lukete. Alde batetik, datu pertsonalen babeserako eskubideen balioak eta haiek modu desegokian lagatzeak dituen arriskuak ezagutzera eman eta sustatzeko eta, bestetik, EAEn berezko araudi bat eta legea aplikarazteaz eta datu pertsonalak babesteko kultura sustatzeaz arduratzen den kontrol-agintaritza bat, hau ere berezkoa, daudela zabaltzea, gizartea sentibilizatuz, herritarrak beren eskubideez ohartaraziz eta haiek egikitzea babestuz. Baina hori geroagoko geratu da.

DBEBren jarduera hori guztiari “proaktibo” deitzea gustatzen zaigu eta ez dio inolaz ere kalte egiten gure eguneroko jarduerari. Jakina, eguneroko jardunean administrazioek edo partikularrek eskatuta txostenak eta irizpenak egiteak, ezta aurkezten dizkiguten salaketez arretaz arduratzeko premiak, ezta gertakari garrantzitsuen berri dugunean ofiziozko espedientei hasiera emateak, ezta jatorrizko administrazioetan datuak eskuratu, zuzendu, baliogabetu eta horien aurka egiteko beren eskubideak

errespetatu ez direnean herritarrek babesteak, ezta behar bezala aritzen ez diren administrazioei arau-hausteko espedienteak izapidetzeak, ezta administrazioek aitortutako fitxategiak erregistratzek ere duten garrantzia ez dugu ahaztu eta ez dugu ahaztuko.

1.2. Eskubide guztiak dira garrantzitsuak

Lege berriak onartzen direnean, normalean eragina izaten dute beste batzuetan. Askotan eragin horrek haiek guztiz edo zati batean indargabetzea dakar berekin, beste batzuetan osagarri bat da eta, agian gutxienetan, “aurkakotasun” bat sor daiteke eta beraz hori integratu edo argitu egin behar da. Datu pertsonalen babesari buruzko araudiak bat egiten du eta “ukitu egiten ditu” era berean babestuta dauden herritarren beste eskubide batzuekin eta etorkizunean, funtsean auzitegien erabakietan oinarrituta, pixkanaka behar bezala integra daitezten itxaron beharko dugu. Dena den, gehienetan eskubideen integrazioa hipotesi zehatza aztertu ondoren erabaki beharko da; izan ere, ez dezagun ahaztu azken batean zirkunstantzia, ingurunea, errealitatea zehatza dela arauaren interpretazio egokia argitu behar duena.

Gure ibilbide labur baina bizian aurkitu ditugu aurkakotasun horietako batzuk. Garrantzitsuenak eta gehien errepikatzen direnak aipatuko ditugu: hipotesi batzuetan datuen babeserako eskubidea herritar guztiek duten artxiboetako eta erregistroetako informazioa eskuratzeko eskubidearekin bateratu beharra planteatzen da, baita aldizkari ofizialeko argitalpenen bitartez lehiaketa-prozesuei buruzko informazioa ezagutzeko eskubidearekin, sindikatuen ordezkariak beren kontrol-zeregina burutzeko informazioa jasotzeko duten eskubidearekin eta legebiltzarkideek, batzarkideek eta zinegotziek politikan parte hartzeko duten eskubidearekin bateratu beharra ere.

1.3. Garai berriak, arrisku berriak. Erne egon gaitezen mehatxu berrien aurrean

Duela urte gutxira arte, zineman edo literaturan besterik ez genituen ikusten pertsonen eta haien datuen kontrolak eta haien erabilera desegoki eta zabalak eragindako gizarte guztiz kontrolatuak, aurreikusitako egoeratan geratutako pertsonen gizarteak. “Gizarte zaindua” delakoa ez da kontzeptu teoriko bat ezta etorkizuneko ere, oraina da eta hemen dago. “Gizarte zainduan” bizi gara jada.


Aurrerapen teknologiko berriek informazioa azkar eta modu masiboan manipulatzeko ahalbidetzen dute edo epe laburrean egingo dute. Profil genetikoak egitea, jarduera-datuetatik (kontsumoa, aisialdia, bidaiak, bizimodua) abiatuta nortasun-profilak egitea, segurtasunaren izenean telefono bidezko edo Internet bidezko informazioaren kontrola, irrati-frekuentzia bitartez identifikatzeko sistemen era-

bilera edo bideozaintza-sistemen orokortzea errealitate berrietako batzuk besterik ez dira. Ez dugu oharkabetu behar, datuen babesaren kulturak barnean hartzen du praktika horietako batzuk egin ahal ez izatea edo, burutuz gero berme egokiekin egitea.

Ez nuke amaitu nahi Bulegoa osatzen duten pertsona guztiei eguneroko lanean jartzen duten interesa eta ardura eskertu gabe.

Iñaki Vicuña de Nicolás

Zuzendaria



2. Erakundeekiko Harremana eta Komunikazioa

2.1. DBEBren zuzendaria Eusko Legebiltzarrean agertzea.

2006ko urriaren 25ean Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendaria Eusko Legebiltzarraren Erakundearen eta Barne Batzordearen aurrean agertu zen, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak taldeak eskatuta, funtzio publikokoak izan gabe, zentro ofizialetan funtzionarioen ohiko lanak egiten dituzten langileen kopuru handi bat dagoela eta UGT sindikatuak salatutako gertakariei buruz informazioa emateko.

Zuzendariak, egin zitzaion galderari erantzunez, Eusko Jaurlaritzari beharrezko dokumentazio guztia eskatu ondoren, adierazi zuen ez zegoela DBEBren eskumenen artean gai horren mamiaz iritzia ematea, baina bai informatika-sistemarako sarbideari eta haien segurtasunari buruzko gaietaz. Hurrengo kontuez eman zuen informazioa:

- Datu pertsonalak dituzten fitxategi automatizatuaren segurtasun-neurriak ezartzeko Erregelamendua onartzen duen 994/1999 Errege Dekretuan, ekainaren 11koan, maila desberdinetako fitxategientzat ezarritako segurtasun-neurriak,
- Eusko Jaurlaritzan ezarritako segurtasun-neurriak, Gobernu Kontseiluak 2002ko ekainaren 16an akordio bidez onartuak, bai eta haren administrazio-sare korporatiboaren eta XLNetS sarbideen kontrolaren ezaugarriak ere.

Eta amaitzeko adierazi zuen, DBEBren ustez:

- Eusko Jaurlaritzan hari dagokion segurtasun-ereduaren dokumentuan islatuta dagoen segurtasun-antolamendua zegoela eta hark erabiltzaileen administrazioa behar bezala jasotzen zuela,
- Segurtasun-antolamenduan jasotako arauak hautsi izan zitezkeenik adierazten zuen gertakari edo zirkunstantzia zehatzik ez zela adierazi,

Azkenik, Zuzendariak 2005eko jardueren urteko oroitidazkia entregatu eta legebiltzarkideek egin zizkieten galderei erantzun zien.

2.2. Irudi korporatiboa

Nortasun Korporatiboari buruzko gidaliburuan ezarritako zehaztapenak betez, 2006. urtean zehar dokumentuen plantilla eta eredu desberdinak landu dira.

2.3. Web orriaren bertsio berria

Une desberdinetan edukiak eguneratu dira, bai eta berri batzuk erantsi ere; horien artean aipatzekoak dira:

- Herritarrak atalean, eskubideen deskribapenari dagokion zatian, hainbat eredu sartu dira, herritarrek eskubide horiek administrazio desberdinen aurrean erabili ahal izan ditzaten, DBEBra babes bila jo ahal izan dezaten edo bertan salaketa bat egin ahal izan dezaten.
- Dokumentazioa atalean Bulegoak emandako irizpenak sartzen hasi dira pixkanaka, behar bezala era anonimoan jarri ondoren.

2.4. Hitzarmenak

2007ko urtarrilaren 27an DBEB eta “Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Empresa de Certificación y Servicios, IZENPE, S.A.” sozietatearen arteko elkarlanerako hitzarmen markoa sinatu zen, datu pertsonalen babesari eta sinadura elektronikoa garatzeari dagokionez, elkarlanerako markoa ezartzeko helburuz. Hona dokumentuaren edukia, laburbildurik

Sinatzaileak	• IZENPE • DBEB
Helburua	Datu pertsonalen babesari eta sinadura elektronikoa garatzeari dagokionez elkarlanerako markoa ezartzea.

Betebeharrak	• IZENPE ✓ DBEBri aholkularitza emango dio sinadura elektronikoaren gaian eta laguntza eta euskarri teknika emango dizkio hura erabiltzeko beharrekoak diren aplikazio desberdinak garatzean. ✓ Sinadura elektronikoari buruzko informazioko eta prestakuntzako saioak emango dizkie DBEBko langileei eta, hala dagokionean, datuen babesaren alorreko laguntzaile-sareko kideei. ✓ Akreditazio-txartelak emango dizkio DBEBko langileei eta haren Kontseilu Aholku-emaileko kideei. ✓ ISO 27.001 akreditazio-sistemari dagokion aholkularitza emango dio DBEBri. • DBEB ✓ Hurrengo alderdietan indarreko legeria bete dadin, aholkularitza ematea: - Segurtasun-neurriak betetzea - Zerbitzuak emateko kontratuak egitea - Datuen babesari dagokionez EAEko administrazio publikoek bete beharreko legeriari loturiko beste edozein ✓ Arian-arian sinadura elektronikoa sartuko du bere kudeaketa-aplikazioetan. ✓ Datu pertsonalen babesari buruzko informazioko eta prestakuntzako saioak emango dizkie IZENPE, Sako langileei. ✓ 30/2002 Legearen 2.1. artikuluko administrazio eta erakundeekin dituen harremanetan arian-arian sinadura elektronikoa erabiltzea sustatuko du.
Aplikatzeko era	Urteko eguneratze-planak eta, hala dagokionean, honen aurrekontua egitea.
Jarraipen Batzordea	Erakunde horietako bakoitzeko bi kidek osatua
Indarraldia	Sinatzean sartuko da indarrean eta ez du muga jakinik izango.

2006ko maiatzaren 2an DBEB eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko elkarlanerako hitzarmen markoa sinatu zen, datu pertsonalak babesteari dagokionez, elkarlanerako markoa ezartzeko helburuz. Hona dokumentuaren edukia, laburbildurik:

Sinatzaileak	• UPV/EHU • DBEB
Helburua	Datu pertsonalak babesteari dagokionez elkarlanerako markoa ezartzea.
Betebeharrak	• UPV/EHU ✓ Jardunbide egokien gidaliburu bat egiten laguntzea, argitaratzea eta banatzea. ✓ Informazioko eta prestakuntzako saioak koordinatu eta kudeatzea. ✓ Datuen babesaren gairako arduradun bat izendatzea. ✓ Tresna eta dokumentu-ereduak eratzea. ✓ DBEBko langileei bibliografia-fondoetarako sarbidea erraztea. ✓ DBEBri bere ikasleek han praktikak egitea proposatzea. ✓ Zuzenbidearekin, informatikarekin eta informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriekin erlazionatutako irakasgaietan datuen babesari dagokionez indarrean dagoen legeriaren eragina aztertzeke lan-talde bat mar-txan jartzea, pixkanaka ikasketa-planetan sartzea proposatzeko asmoz. ✓ UPV/EHUn datu pertsonalen babesari edo teknologia berriak eta zuzenbideari buruzko master edo espezializazio-ikastaro bat egitearen bideragarritasuna aztertzea. ✓ Datu pertsonalen babesarekin eta hari lotuta informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriekin erlazionatutako karrera-amaierako proiektuak, ikerketa-proiektuak edo tesiak sustatzea. • DBEB ✓ UPV/EHUrako jardunbide egokien gidaliburu bat egiten laguntzea. ✓ Informazioko saioak antolatzea. ✓ Datu pertsonalen babesari buruzko jardunaldiak egitea. ✓ Hurrengo alderdietan indarreko legeria bete dadin, aholkularitza ematea: - Datu-fitxategien sorrera, eraldaketa eta suntsipena - Segurtasun-neurriak betetzea - Zerbitzuak emateko kontratuak egitea - Eskubideen edukia eta egikaritzeko forma ✓ UPV/EHUko ikasleek DBEBn praktikak egitea ahalbidetzea.

	✓ Zuzenbidearekin, informatikarekin eta informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriei erlazionatutako irakasgaietan datuen babesari dagokionez indarrean dagoen legeriaren eragina aztertzeko UPV/EHUK sortzen duen taldeari laguntzea. ✓ Colaborar con el grupo que cree la UPV/EHU para el análisis del impacto de la legislación vigente en materia de protección de datos en las asignaturas relacionadas con el derecho, la informática y las nuevas tecnologías de la información y la comunicación.
Aplikatzeko era	• Urteko eguneratze-planak eta, hala dagokionean, honen aurrekontua egitea
2006ko planeko jarduerak	• Errektoretza-taldeko, gerentziako eta ikastegietako zuzendaritza-taldeetako kideentzako sentsibilizazio-jardunaldi bat antolatzea. • UPV/EHUn datu pertsonalen babesari buruzko Jardunbide Egokien Gidaliburu bat egin, argitaratu eta banatzea.
Jarraipen Batzordea	Erakunde horietako bakoitzeko bi kidek osatua
Indarraldia	Sinatzean sartuko da indarrean eta ez du muga jakinik izango.

Era berean 2007. urtean sinatzeko geratu ziren hainbat hitzarmen negoziatu ziren, ondoko erakundeekin:

- Askatasunen eta Informatikaren Batzordea (AIB).
- Osasun Informatikaren Espainiako Elkarte (SEIS).

2.5. Nazioarteko foroetan esku hartzea

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak, kreditatutako kide gisa parte hartu zuen ondokoetan:

Datuen Babeserako Europar Agintarien Konferentzia –Udaberriko Konferentzia – Budapesten apirilean (24an eta 25ean) egina; bertan aurkeztutako ponentziak honako arlo hauei buruzkoak izan ziren:

- Hirugarren zutabea (segurtasuna eta justizia)
- Geo-lokalizazioa eta irratifrekuentzia bidezko identifikazioa

- Salaketen konfidentzialtasuna
- Datuen babesa ikerketa historiko edo zientifikoetan
- Osasunari buruzko datu-base nazionalak eta osasun-txartelak
- Datuak babesteko Komisarioek edo Agintariek beraien herrialdeetan duten eraginkortasunari buruzko barne-azterketa.

Konferentzian Adierazpen bat egin zen formalki datuen mugaz haraindiko fluxuari buruz eta, erabilgarritasunaren printzipioa aplikatuz, artxibo nazionaletan bildutako informazioa partekatzeari buruz; hori guztia Europa mailako elkarlan polizial eta judizialaren esparruan. Budapesteko Adierazpen horretan Europako nahiz nazioetako parlamentariei eskatzen zaie datuen babesaren estandar altu eta harmonizatu bat zehaztuko duten neurriak sustatzeko, eta segurtasuna eta askatasun zibilak orekatzeko.

Konferentzia honi buruzko informazio gehiago lortzeko, ondoko URL bisita daiteke: Annual Spring Conference of the European Data Protection Commissioners, taking place on the 24th April and 25th April, 2006 in the capital city of Hungary, Budapest. <http://abiweb.obh.hu/dpc/springconference2006/>

Pribatutasuna eta Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Nazioarteko Konferentzia Udazkeneko konferentzia (28th International Conference of Data Protection and Privacy Commissioners) Londresen azaroaren (2an eta 3an) “The surveillance society” (Zaintzaren Gizartea) gaiaren inguruan Erresuma Batuko Kontrol Agintaritzak (ICO-Information Commissioner’s Office, Informazio Komisarioaren Bulegoa). antolatuta egin zena.

Esku-hartze gehienek eguneroko bizitzaren arlo guztietan “zaintza” izaten ari den presentzia gero eta handiagoaren, , dituen ondorioak izan zituzten mintzagai, ikuspegi desberdinetatik. Eztabaidetan, honako ideia hauek nabarmendu ziren:

- “Zaintzaren gizartean” bizi gara.
- Zaintza-jarduera batzuek helburu onak izan eta onurak ekar ditzaketen arren, badira ezkutukoak, neurriz kanpokoak eta kontrolatu gabeak diren beste zaintza-jarduera batzuk, eta horiek arrisku handiak dituzte pribatutasunarentzat.
- Datuen eta pribatutasunaren babesa arautzea prebentzio-neurri garrantzitsua da, baina ez da eman daitekeen erantzun bakarra. Pribatutasunean eta gizartean duten eraginaren eta norbana-koentzat eta gizartearentzat nahi ez diren ondorioak minimizatzeko aukeren ebaluazioa sistematikoki erabili behar litzateke.

- Zaintza-sistemen erabilera desegokiaren aurrean neurriak aplikatzean funtsezkoa da jendearen konfiantza.

Konferentzian ateratako ondorioa izan zen “Datuak eta Pribatutasuna Babesteko Kontrol Agintaritzek dituzten erronkak handiak direla, zaintzari dagokionez bakarrik ez, baita informazioa prozesatzeko teknologietan izandako aldaketa azkarren, globalizazio-maila handiagoaren, aurrerapen batzuen atzeraezintasunaren eta gure gizartearen behar adinako kontzientziarik eta heziketarik ezaren ondorioz ere. Datu pertsonalak babesteko bermeak, bai eta berme horiek ezartzen eta aplikatzen laguntzen duten Kontrol Agintaritza independenteak ere, ezinbestekoak dira informazioaren aro modernoan. Datuak eta Pribatutasuna Babesteko Kontrol Agintaritzek erronka onartu dute eta beren konpromisoa berretsi dute datuak babesteko kontrolak gaur egun eta etorkizunean, egungo aurrerapen asko oraindik hasierako etapan zeudenean baino hobeak izan daitezela ziurtatzeko ahaleginak bikoizteko.”

Informazio gehiago lortzeko “28th International Data Protection and Privacy Commissioners' Conference to be held in London” delakoaren URL bisita daiteke.

<http://www.privacyconference2006.co.uk/>

Bestalde, DBEBk ondokoetan ere parte hartu zuen:

Madrilen martxoaren 27an eta 28an APDCMk (Madrilgo Autonomia Erkidegoko Datuak Babesteko Agentzia) antolatuta egin zen Datuen Babeserako Europar Agintarien Konferentziako XIII. “Case Handling Workshop” delakoa. Bertan Europar datuen eta pribatutasunaren babesaren esparruan garrantzitsuak eta gaurkotasun handikoak diren gai batzuk landu ziren, Europako kontrol-agintaritzen artean erlkarlanerako mekanismoak areagotzera bideratutako ikuspegi batez ere praktiko batetik:

- Datuen babesa Administrazio Elektronikoa.
- Herritarrekiko eta tratamenduen arduradunekiko komunikazioan, gai honen inguruan dituzten eskubideez eta betebeharez ohartarazteko eta lan-esparruan datu pertsonalentzat dauden tratamenduak jakinarazteko, agintari desberdinek izan dituzten esperientziak.
- Espainiako e-NAN berria eta, hura diseinatzean datu pertsonalak babesteko araudian ezarritako printzipio eta eskubide guztiak kontuan hartu direla bermatzeko, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoak horretan izan duen parte-hartzea.
- Blogging-aren analisia, geolokalizazioa, bideozaintzaren bilakaera, datuen babesaren eta dokumentu publikoen eskuragarritasunaren arteko lotura.

- Datuen tratamenduaren alde zuzeneko kontrolean izandako hainbat esperientzia.

Madrilaren martxoaren 29tik 31ra bitartean Datuak Babesteko Espainiako Bulegoak, BBVA Fundazioak eta Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Ganberetako Goi Kontseiluak antolatuta egin zen Datuen **Babeserako Europako Lehen Batzarra**. Bertan Espainiako eta Europako Bulegoetako eta enpresetako ordezkariak parte hartu zuten eta hainbat gai garrantzitsu aztertu ziren, besteak beste:

- Datuak Babesteko Arteztarauaren jarrera eta esanahia.
- Datuen babesa, sektore pribatua eta ekonomia-jarduera.
- Datuen babesa eta segurtasuna: EBN gai penalean, terrorismoaren eta delinkuentzia antolatuen aurkako borrokan, eta iruzurraren kontra elkarlanean aritzeko modu berriak.
- Datuen Babesa eta Gardentasuna. Telekomunikazioetan eta Pribatutasunean izandako garapen berriak.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoa **Telekomunikazioetan Datuak Babesteko Nazioarteko Lan Taldean (IWGDPT)** ingelesez, **Berlingo Taldea** izenez ere ezagutzen dena) sartu zen 2006. urtean, eta parte hartu zuen irailaren 5ean eta 6an Berlinen egindako berrogeigarren bileran. Talde horrek Interneten munduan pribatutasuna babestera eta sortzen ari diren teknologiek pribatutasunean duten eragina aztertzerantz bideratu du bere lana. Taldearen ondorioak Datuak Babesteko Komisarioen Nazioarteko Konferentzian jakinarazten dira eta interesa duten erakundeei ere ematen zaie haien berri.

Bileran zenbait gai pribatutasunarentzat dituzten ondorioak eztabaidatu ziren, zentzu zabalean. Horien artean azpimarratzekoak dira honako hauek:

- Pribatutasuna eta IP gaineko ahots-telefonía (VoIP)
- Pribatutasuna Interneteko bilatzaileetan
- Eskubide digitalen kudeaketa eta konputazio fidagarria (DRM-TC)
- Pribatutasuna eta mugaz haraindiko telemarketina
- Osasun-erregistroak on-line eskuragarri izatea eta historia kliniko elektronikoak
- Gazteek eta adingabeek erabiltzen dituzten web-zerbitzuetako pribatutasuna
- Administrazio elektronikoa
- Sentsoreen sareak eta RFID

Bilerari buruzko informazio gehiago lortzeko International Working Group on Data Protection in Telecommunications (IWGDPT) delakoaren URL bisita daiteke: <http://www.datenschutz-berlin.de/doc/int/iwgdpt/>

2.6. Datuen babesaren alorreko estatu espainiarreko beste hainbat bulegorekiko kolaborazioa

DBEB estatuko datuak babesteko beste bulegoekin elkarlanean aritu da honako hauetan:

Datu Pertsonalak Babesteko Erkidegoetako Bulegoen III. Topaketa, Datuak Babesteko Kataluniako Bulegoak “Datuen Babesa Nazio Anitzeko Estatuetan eta Federaletan” izenpean Nazioarteko I. Konbentzio gisa antolatu eta 2006ko urriaren 4an eta 5ean Bartzelonan egin zena. Bertan, besteak beste, ondoko gaiak aztertu ziren:

- Bulegoen arteko lankidetzak Espainian
- Datuak babesteko agintaritzak estatu federatuetan.

Lehenean DBEBko zuzendariak txosten bat aurkeztu zuen.

Datuak Babesteko Erkidegoetako Bulegoen II. Konferentzia. Uztailaren 13an datuak babesteko estatuko bulego guztiek bilera egin zuten APDCMren egoitzan, datuak babesteko bulego guztien artean lankidetzak eta irizpideen koordinazioa bultzatu eta optimizatzeko xedez.

Bilera hartan, ondoko gaiak aztertu ziren:

- Zuzendarien taldea:
 - ✓ Datuen Babesari buruzko Lege Organikoa garatzeko araudiaren zirriborroaren analisia.
 - ✓ Bulegoen koordinazioko eta lankidetzako sistemen analisia.
 - ✓ Eskubideen Ikuspapen eta Zaintzako taldea
- Fitxategi publikoen eta pribatuen mugaketa lanbide-elkargoetan.
 - ✓ Prozedura berean bulego bat baino gehiago elkartzen direnean jarraitu beharreko prozedura
 - ✓ Epailearen epaiak edo ebazpenak argitaratzean jarraitu beharreko irizpideak.
 - ✓ Administrazio publikoek informazio instituzionala igortzeko orduan egiten dituzten komunikazio pertsonalizatuen bidalketaren esparru juridikoaren analisia.

- SIDIR taldea
 - ✓ Datuak Babesteko Espainiako Bulegoak NOTA proiektuaren egoeraren aurkezpena egin zuen.
 - ✓ Fitxategiak aitortzeko formatuen sinplikazioaren azterketa.
- Idazkaritza Nagusien taldea
 - ✓ Web orrietako batean bulegoetako langileenetzako intranet baten garapena aztertzea. Intranet horretan gaien arabeko eztabaida-formak eta bestelako eduki batzuk egongo lirarteke.
 - ✓ Bideokonferentzia-sistema bat ezartzeko aukeraren analisisa. Bulegoak pixkanaka sartuko lirarteke sistema horretan.
 - ✓ Idazkaritza Nagusien funtsezko jardueren prozedurei eta prozesuei buruzko esperientziak edo kalitatea egiaztatzeko sistemak elkar trukatu eta datu pertsonalak babesteko eskubidea sustatzeko publizitate-kanpainak egiteko aukera.

2.7. *Datu pertsonalen babesari buruzko hitzaldi, mintegi eta bestelako jardueretan esku hartzea*

- **“Datuen babesa eta aseguru bitartekotza”** hitzaldia. Bilbo, 2006ko martxoaren 7an. Aseguru Bitartekarien Elkargoak eta Bilboko Merkataritza Ganberak antolatuta.
- **Protección de Datos y Justicia** jardunaldia. **“Protección de datos y abogacía”** txostena. Andorra la Vella, 2006ko martxoaren 30ean. Andorrako Abokatuen Elkargoak antolatuta.
- **La aplicación de la Ley de Protección de datos de carácter personal (LOPD) a las Administraciones locales catalanas** jardunaldia. **“Seguridad y calidad en la gestión administrativa”** txostena. Bartzelona, 2006ko maiatzaren 4an. Datuak Babesteko Kataluniako Bulegoak eta LOCALRETEk (Komunikazioen eta teknologia berrien sareak garatzeko Kataluniako Udalen Partzuergoa) antolatua.
- **Confidencialidad en Historia de la Salud** hitzaldia. Bartzelona, maiatzaren 17an eta 18an. SEIS (Osasun Informatikaren Espainiako Elkarte) Foroaren barnean antolatuta.
- **Datuak Babesteko Legeari buruzko informazio-jardunaldia** hitzaldia. Donostia, 2006ko maiatzaren 30ean. Gipuzkoako Aseguru Bitartekari Tituludunen Elkargoak antolatuta.
- **“La perspectiva de las Agencias Autonómicas en relación con el desarrollo reglamentario”** txostena, El Reglamento de desarrollo de la Ley de Protección de datos ikastaroan. El Escorial,

2006ko uztailaren 26an, Unibertsitate Konplutentseak antolatutako El Escorialeko uda-ikastaroen barnean.

- ***"Auditoria, Derecho y Autoridades de control"*** txostena. Bartzelona, 2006ko urriaren 3an. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Zuzenbide eta Teknologia Institutuak –IDT- antolatuta (ISACAko kideak, Bartzelonako Kapitulua).
- ***"Datu pertsonalen babesari buruzko"*** jardunaldiak. Bilbo, Donostia, 2006ko urriaren 19an eta 26an. Zuzenbidearen Euskal Kontseiluak antolatuta.
- ***"Datu pertsonalen babesa Euskadiko udaletan"*** txostena, Bizkaiko Toki Administrazioarako Jardunaldi Teknikoen barruan. Bilbo, 2006ko azaroaren 10ean. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak antolatuta.
- ***"Datu pertsonalen babesa eta lanbide-elkargoak"*** txostena. Bilbo, 2006ko azaroaren 21ean. Gipuzkoako Odontoestomatologoaren Lanbide Elkargoak antolatuta eta osasun-esparruarekin erlazioz antolatutako Gipuzkoako Lurralde Historikoko lanbide-elkargoetako kideei zuzendua.

2.8. Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren parte-hartzea Kontseilu Aholku-emailean

DBEBko zuzendariak, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren Kontseilu Aholku-emaileko kide den aldetik, 2006. urtean egindako bi saioetan parte hartu zuen, uztailaren 12an eta abenduaren 28an hurrenez hurren.

Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren konfigurazio berria, haren Zuzendariaren izendapena eta Kontseilu Aholku-emaile berriaren izendapena zirela eta, urriaren 31n Eusko Jaurlaritzak honako erabakia hartu zuen: "Datuak Babesteko Euskal Bulegoko Zuzendaria, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren Kontseilu Aholku-emaileko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ordezkari gisa Iñaki Vicuña de Nicolás jauna proposatzea, Kontseilu Aholku-emaile berriaren agintaldiak iraungo dituen lau urteetarako".

2.9. DBEB bere eskumenaren peko erakundeei aurkezteko kanpaina

2005. urtearen amaieran, DBEBren eskumenaren eragina jasotzen duten administrazioei Bulegoa aurkezteko kanpaina diseinatzeari ekin zitzaion.

Beraz, 2006ko lehen sei hilekoan honako bilera hauek egin ziren:

Arabako Foru Aldundia	2006/01/20
Kooperatiben Goren Kontseilua	2006/03/15
Eusko Jaurlaritzako Lehendakariordetza	2006/03/16
Lehendakaritza	2006/03/08
Herri Kontuen Euskal Epaitegia	2006/03/14
Gipuzkoako Batzar Nagusiak	2006/03/17
Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila	2006/03/20
Kultura Saila	2006/03/20
Arabako Batzar Nagusiak	2006/03/21
Ekonomia eta Gizarte Kontseilua	2006/03/22
Lan Harremanen Kontseilua	2006/03/22
Eustat	2006/03/23
Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila	2006/04/03
Emakunde	2006/04/06
Bizkaiko Batzar Nagusiak	2006/04/07
Gipuzkoako Foru Aldundia	2006/04/07
Eusko Legebiltzarra	2005/04/10
Barne Saila	2006/04/11
Ogasun eta Herri Administrazioen Saila	2006/04/11
Euskal Herriko Unibertsitatea	2006/05/02
Osakidetza	2006/05/03
Osalan	2006/05/04
Osasun Saila	2006/05/08
Garraio eta Herri Lan Saila	2006/05/08
Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila	2006/05/10
Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerketa Saila	2006/05/16
Industria, Merkataritza eta Turismo Saila	2006/05/23
Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila	2006/05/29

250 pertsona baino gehiagok parte hartu zuten, gehienak datu pertsonalak erabiltzen diren arloetan erantzukizunak dituzten kargu politikoak (sailburuak, sailburuordeak, zuzendariak, gerenteak).

Azken hiruhilekoan udalekin egindako bileren kanpaina abiarazi zen, Euskal Autonomia Erkidegoko 251 tokiko gobernuekin harreman zuzena izateko xedez.

Udalak	Biztanle-kopurua	Bileraren data	Bileraren tokia
Bilbo	353.913	2006/10/17	Bilbo
Basauri	45.687	2006/10/18	Basauri
Sestao	30.808		
Gasteiz	227.194	2006/10/25	Gasteiz
Getxo	83.796	2006/11/17	Getxo
Leioa	29.045	2006/11/30	Leioa
Erandio	23.554		
Galdakao	29.580		
Laudio	18.639	2006/11/30	Laudio
Amurrio	9.605		
Donostia	182.644	2006/12/05	Donostia
Irun	59.961	2006/12/05	Irun
Errearteria	38.141		
Azpeitia	13.857	2006/12/11	Azpeitia
Azkoitia	10.545		
Elgoibar	10.537		
Zarautz	22.150		
Lasarte-Oria	17.653	2006/12/11	Lasarte-Oria
Andoain	14.026		
Hernani	19.840		
Hondarribia	15.986		
Pasaia	16.203		

90 pertsona baino gehiagok parte hartu zuten bilera horietan, gehienak udaletxeetako idazkariak eta, gutxiago, alkateak eta zinegotziak.

Bileren helburuak honako hauek ziren:

- Erakundearen arduradunak datuak babesteko kultura berri bat ezartzeak duen garrantziaz ohartaraztea.
- Datuen babesaren lege-esparrua eta DBEB zer den laburki azaltzea.
- Bisitatutako erakunde bakoitzean egoera zein den aztertzea.
- Arduradunen aldetik gai honen inguruan topatzen dituzten zalantzak edo arazoak entzutea.



3. Datuak Babesteko Euskadiko Erregistroa

3.1. *Datuak Babesteko Erregistroko inskripzioak. Datuak eta koadroak.*

3.1.1. Informazioaren jatorria


Datuak Babesteko Erregistroaren jarduera, fitxategien aitorpenen bilakaerari dagokionez, I. Eranskinean aurkeztuko dugu; bertan jasota dauden taulek Erregistroaren bilakaera historikoaren, fitxategien mugimenduen, aitortzen dituzten erakundeen, aitortutako fitxategien eta abarren datuak erakusten dituzte, aldagai desberdinekin gurutzatuta, hala nola administrazio-mota eta aitortutako fitxategien segurtasun-maila.

Kalkulu horiek guztiak egiteko erreferentziazko datatzat hartu da “fitxategiak Datuak Babesteko Erregistroan inskribatu, aldatu edota deuseztatu direnekoa”, fitxategien arautze-xedapena argitaratzen deneko dataren orde. Bestalde, adierazi beharrekoa da iazko oroitidazkia egitean 2005. urtean deuseztatutako fitxategi batzuk zenbatu zirela (84 guztira) urte horretan aitortutako fitxategi aktibo gisa. 2005eko oroitidazkian egindako kalkulu guztietan sartu zen desfase hori, zuzendu egin dugu 2006. urteko oroitidazki honetarako.

3.1.2. Inskripzio-eskabideak

2006. urtean zehar, guztira 800 mugimendu egon dira (inskrizioak, aldaketak edo deuseztapenak). Horietatik gehienak fitxategi berrien inskripzioak (535, %67) izan dira eta, aldiz, aldaketen (147, %18) eta deuseztapenen (118, %15) kopuruak oso antzekoak izan dira. Mugimendu horien arteko saldo garbiak (inskrizioei deuseztapenak kenduta) Datuak Babesteko Erregistroan 417 fitxategi gehiago daudela azaltzen du. Kontuan izan behar da fitxategiak deuseztatzen diren gehienetan datuon tratamendua ez dela bertan behera geratzen, baizik eta aldi berean sortzen den beste fitxategi berri batean eraldatu edo sartzen direla datuok.


Egindako mugimendu gehienak toki-administrazioaren (435 mugimendu, %55) eta Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde autonomiadunen (306 mugimendu, %38) artean banatu dira.




3.1.3. Erakunde aitortzaileak

Babesteko Erregistroan fitxategien 878 arduradun ageri dira; horietatik gehienak (794, %90) Administrazio-organoak dira, %5 Erakunde Autonomiadunak (43) eta %5 "bestelako izaera juridikoa dutenak" (41).

Fitxategi bakoitzaren aitortopenean, fitxategiaren arduradunaren esleipena zehatz-mehatz egiten



bada ere (Zuzendaritza Orokorraren edo administraziozko bulego zehatzaren mailan), Erakunde Aitortzaile Nagusiaren arabera, taldeka biltzea komenigarritzat jo da, hau da barruko egitura organikoaren xehetasunak kontuan izan gabe. Horretarako, erakunde bakoitzaren IFKak hartu dira aintzat; Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari eta Institutuzionalari dagokionez, ordea, hura osatzen duten sail, erakunde autonomiadun edo zuzenbide publikoko ente bakoitza Erakunde Aitortzaile Nagusi gisa sailkatzen da.



Azaldu dugunagatik, Erakunde Aitortzaile Nagusien kopurua 257ra gutxitu da. Datuok 2005ekoekin konparatuz gero, 7 Erakunde Aitortzaile Nagusi gehiago ageri dira.

Fitxategien inolako aitortpenik egin ez duten udalei dagokienez, datuak 2005. urtekoen oso antzekoak dira. 2006. urtean 83 dira DBEBn fitxategirik inskribatu ez duten udalak, 2005. urteko 84en aldean.


Dena den, udalekin egiten ari diren bileren ondorioz, haietan besteak beste DBEBn aitortu dituzten fitxategien egoeraren berri ematen zaienez, esan beharra dago udal batzuek dagokien Aldizkari Ofizialetan fitxategien aitortpen-xedapenak argitaratu dituztela, DBEBko Erregistroan inskripzioa formalizatu ez duten arren.

Egoera hori normalizatzen denean, fitxategiak aitortu ez dituzten udalen zerrenda nabarmen gutxituko da.

3.1.4. Inskribatutako fitxategiak

Datuak Babesteko Euskadiko Erregistroan, guztira 3.454 fitxategi daude inskribatuta.


Gehitutako 417 fitxategi garbiek, 2005. urtearekin alderatuta, %13,7ko gehikuntza erakusten dute.




Aurreko grafikoak denboran zehar inskribatutako 3.454 fitxategien banaketan izandako saldo garbia adierazten du, inskripzioaren data kontuan hartuta.

Azken bi urteetan fitxategien hainbat deuseztapen izan dira, haien tratamendua amaitu delako edo sortutako fitxategi berrietan integratu direlako. Deuseztatutako 202 fitxategietatik, 84 2005. urtean deuseztatu ziren eta 118 2006. urtean.

Ondoko grafikoak deuseztatutako fitxategiak erakusten ditu, inskribatuak izan ziren urtea kontuan hartuta. Deuseztapen horien erdia 1995. urtean inskribatutako fitxategiei dagokie.



Egindako deuseztapenen ondorioz, aldatu egin da aktibo dauden fitxategien kopurua, inskripzio-urte-ari dagokionez. Ondoko taulak egoera berri hori islatzen du..



3.1.5. Inskribatutako fitxategiak erakundeka xehatuta

Eusko Jaurlaritzaren sailek eta erakunde autonomiadunek 514 fitxategi dituzte inskribatuta, alegia, 2005. urtean baino 68 fitxategi gehiago. Horrek aurreko urtearen aldean %15,2ko gehikuntza adierazten du.


Foru-administrazioaren egoera joan den urtekoarekin alderatuta ez da askorik aldatu; 254 fitxategi dituzte inskribatuta eta gehikuntza %1,2koa izan da.

Oro har udalak izan dira 2006an jarduera handiena izan dutenak; guztira 315 fitxategi inskribatuta dituzte eta gehikuntza, hortaz, %13,7koa da 2005. urtearekin alderatuta. Horien guztien artean, Bizkaiko udalak nabarmendu behar dira, guztizko ekarpenean nahiz urteko gehikuntza-tasan, hazkundea %36,5ekoa izan delarik. Alderantziz, Gipuzkoan ia ez da aldaketarik izan, inskribatutako fitxategien kopurua %0,2 gehitu baita.

Bestalde, adierazi beharra dago, bi erakunde autonomiadunek beren fitxategiak inskribatu dituztela lehenengoz: Eusko Legebiltzarra eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak.


3.1.6. Inskribatutako fitxategien segurtasun-mailak

Inongo segurtasun-mailarik aitortu gabeko fitxategi kopurua handia dela ikusteak adierazten digu hainbat erakundetara datuen babesari zenbaterainoko dedikazioa eskaintzen zaion. 2006an, inongo segurtasun-mailarik aitortu gabeko 1.042 fitxategi zegoen artean, eta horrek esan nahi du, abenduaren 13ko 16/1999 Lege Organiko berriaren eskakizunetara ez direla egokitu. Dena dela, joan den urteaz geroztik, fitxategi horien kopuruak %11,2ko murrizketa izan du eta horrek nolabaiteko eguneratzea adierazi nahi du.



Aurreko grafikoak aktibo dauden inskribatutako fitxategien aitortutako segurtasun-maila adierazten du, fitxategiaren hasierako inskripzioa egin zen unearen arabera.

Grafikoan argi eta garbi ikus daiteke lehenago adierazitako bilakaera: gero eta gehiago dira 2001. urtea baino lehenagokoak izanik fitxategi horien aldaketen jakinarazpenen ondorioz aitortutako segurtasun-maila dutenak.



4. Aholkularitza Juridikoa eta Ikuskaritza

4.1. Orokorki

DBEBren Aholkularitza Juridiko eta Ikuskaritza Unitatearen jarduera, barne-jardueraz kanpo. (Zuzendaritzari, Idazkaritza Nagusiari eta Erregistro eta Teknologia berriak Unitateari laguntzea, alegia) 2006. urtean hurrengoetara bideratu da:

- Kotsultazkoa
 - ✓ Irizpenak
 - ✓ Txostenak
 - ✓ Bestelako jarduerak (aholkularitzazko bilerak, e-mailei erantzuna ematea, telefonozko eta aurrez aurreko erantzunak, etab.)
- Kontrolezkoa
 - ✓ Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, baliogatzeko eta horien aurka egiteko eskubideen egikaritzari dagozkion babesengatik.
 - ✓ Legez kontrako jardueraz eginiko salaketa eta erreklamazioengatik.
 - ✓ DBEBk berak hasitakoak.

Bidezkoa denez, azpimarra dezagun, hurrengo ataletan ematen den informazioaz kanpo, Bulegoak eginiko kontsulta, txosten eta erabakien edukia era anonimoan sartzen ari dela DBEBren Web orrian, nahi duenak kontsulta egin ahal izan dezan.

4.2. Kontsulta-funtzioa

4.2.1. Irizpenak

Eginiko kontsultei idatziz emaniko erantzuna, 2/2004 Legeko 17 n) artikuluan jaso, herri-aholkularitzako zerbitzutzat kontsidera daiteke eta “irizpen” izena ematea erabaki dugu. Datu pertsonalen

babesari dagokionez, gai zehatz bati buruz zalantzak aurkezten dituzten administrazioei edo pertsona pribatu, fisiko zein juridikoei eskaintzen zaie.

Kontsulta-funtzio honen mugak honakoa eragingo dute:

- Datu pertsonalen babesarekin loturiko zeinahi gairi buruzkoa izatea kontsulta; berariaz, 2/2004 Legearen 2.1 artikuluan adierazitako administrazioek edo erakundeek sortu edo kudeatzen dituzten fitxategiei buruzkoak.
- Planteatu den kontua zehatza izatea; horrek agintzen du, gutxien-gutxienez, zalantzak sorrarazi dituen jokabidea zehaztea edo ustezko kasu bati xedapena aplikatzea.

2006. urtean 2005ean egindako bost kontsultari erantzun zaie, eta guztira hogeita hamabost kontsulta berri jaso dira. Horietatik, txosten bidez hogeita biri eman zaie erantzuna, biri gutun bitartez, bat salaketa-espediente bilakatu da, beste bat Jardunbide Egokien Gidaliburua lantzeko lan-taldearen esparruan ebazten ari da, beste bati ahoz erantzun zaio, eta gainerako zortzietan 2007. urtean ari zaie erantzuna ematen.

2006. urtean gertatutakoak nabarmen utzi dio Bulego honi zenbait gai behin eta berriz agertzen direla eta bereziki kezkatzen dituztela kontsulta-egileak; horiek normalean bat datoz oinarrizko eskubidearen funtsezko edukian eragin zuzena duten jokabideekin.

Horregatik, gai horietan jarraitu beharreko ildoak ezartzen saiatu gara, herritarrei nahiz administrazioei ahalik eta ziurtasun eta segurtasun juridiko handiena eskaintzen ahaleginduz.

Hemen azpimarratu nahi genuke, bereziki garrantzitsuak direlako, datu pertsonalen lagapen hipotetiko desberdinei dagokienez eta datu pertsonalen babeserako eskubidearen eta politikan parte hartzeko eskubidearen arteko loturari dagokionez gure jarrera zein izan den.

Datuak lagatzea estatistika-funtzio publikorako

EUSTAT, Euskal Estatistika Erakundeak ahalmen handia du bost urteko estatistika-planean jasotzen diren estatistikak egiteko datuak jasotzean, ahalmen handi hori ematen diona, hain zuzen, plan hori lege-maila duen arau batek onartua izatea dela ahaztu gabe. Beharrezkoa den oreka lortzeko, ordea, datuak jasotzeko esleipen zabal horiek sekretu estatistikoa hertsiki arautuz konpentsatu behar dira, horrela EUSTATEk berak datuak lagatzea mugatuko litzateke. Hain zuzen ere horregatik, Bulego honek beharrezkotzat jo du sekretu estatistikoa zer den hertsiki interpretatzea.

Erroldako datuak lagatzea

Udaletxeetan jasotzen diren lagapen-eskaera ugariak direla eta, tokiko gobernuek erroldan bilduta dauden datuen erabilera zuzenari buruz behin eta berriz adierazten duten kezkari dagokionez, DBEBk ondoko irizpideak finkatu ditu:

- Kontuan hartzea Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeko 16.3 artikuluko erroldak duen helburua betetzeko berez balio duten datuak bakarrik (herritarren ohiko helbidea edo bizitokia zehaztea, auzoko-izaera esleitzea, udalerriko biztanle-kopurua zehaztea eta bizitokia eta helbidea egiaztatzea, azken batean, identifikazio-datuak eta helbide-datuak, ez besterik) lagatzea ahalbidetzen duela, eta datu zehatz horiek laga ahal izango direla bakarrik lagapen-hartzaileak bere eskumen bat erabiltzeko orduan helbidea edo bizitokia datu garrantzitsua bada. Halakoetan, lagapen-hartzaile horren betebeharra da bere eskumena egiaztatzea eta eskumen hori gauzatzeko erroldako datua garrantzitsua dela egiaztatzea.
- Datu pertsonalen babesaren ikuspegitik, mintzagai dugun oinarritzko eskubidea ukitu gabe edo gutxiago ukituz, helburu bera lortzeko aukera ematen duen alternatiba hobea dela ohartaraztea. Horri dagokionez, adieraziko da erroldako datuak eskatu diren kasu gehienetan, bazirela oinarritzko eskubide hori ukitu gabe helburu bera lortzeko aukera ematen zuten beste bide batzuk ere. Halakoak ditugu:
 - ✓ 2/2004 Legearen, otsailaren 25ekoaren, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoaren Bigarren Xedapen Gehigarrian aurreikusita dagoena.
 - ✓ Datuak laga ondoren burutu nahi zen eragiketa burutzeko udalek egindako lankidetzak eskara. Lankidetzak hori udala bera auzokoekin “harremanetan jartzeari” zetzan, haien datuak eskatzaileari lagatzeko beharrik izan gabe.
- Udal batean kontzejuko auzokoei buruzko erroldako datuak bertako administrazio-batzordeari lagatzeko aukera ezartzea, “kontzejuko errolda” bat sortzea ahalbidetzeko.

LOPDren 11.2 c) artikuluko datuak lagatzea

DBEBk interpretatu du LOPDko 11.2c) artikuluko horrek aipatzen duen harreman juridikoak lagatzaile eta lagapen-hartzaile hipotetikoaren artekoa izan behar duela eta, horretarako, batarekin nahiz beste-

areakin nolabaiteko harremana duen hirugarren baten datuak ere komunika daitezkeela. Artikulu horrek babesten ez duena da bi pertsonen arteko harremana burutzeko, harreman horrekin inolako zerikusirik ez duen hirugarren baten esku-hartzeari estaldura ematea, bi alderdietako baten datuak lagatzeko. Lagapen hori guztiz beharrezkoa balitz, logikoena datuaren titularrak berak lagatzea litza-teke, bera baita harremanaren alderdietako bat.

Hildako pertsonen datuak lagatzea

DBEBren ustez nahitaezkoa da Datuak Babesteko Espainiako Bulegoak jarraitutako doktrinari ñabar-dura bat egitea. Beraz, bereizi egin behar da hildakoek oinarritzko eskubidearen titular izateko duten ezintasunaren (eztabaidaezina) eta hildako pertsona horren datuak edota heriotzaren datua bera, babestuak ezin izatea, beste pertsona batzuen datu pertsonalak diren neurrian (hilda ez daudenak, jakina).

Datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidearen eta politikan parte hartzeko eskubidearen arte-an dagoen erlazioa

Datuak babesteko eskubidea politikan parte hartzeko eskubidearekin lehian aplikatzeari lotutako kontsultak hainbat izan dira, bereziki tokiko esparruan.

DBEB oinarritzko bi eskubide horien artean oreka bilatzen saiatu da; izan ere, oposizioko kideek duten informazio-eskubidea beren gain hartu duten ordezkaritza-funtzioaren funtsezko elementu bat eta politikan parte hartzeko eskubidearen oinarritzko edukia dela ulertzen du. Beraz, honakoak dira atera dituen ondorioak:

- Zinegotziei hauek legez esleituta duten ikuskapen- eta kontrol-funtzioa burutzeko datu pertsona-lak komunikatzeak abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan, Datu Pertsonalak babesteko Legearen, 11.2 a) artikuluan, du estaldura, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeko 77. artikuluari lotuta.
- Komunikazio-gai izango dira, zinegotziek esleituta duten ikuskapen- eta kontrol-helburu zehatzari lotuta, egokiak eta neurrizkoak diren datu pertsonalen datuak.
- Datu horiek zein izango diren baloratzea eta eskaeraren baldintzak betetzea Udalaren organo egokiei dagokie.

- Hala dagokionean, egiten den datuen komunikazioa Udalak berak segurtasun-alorrean ezarrita dituen protokoloen barnean sartu behar da (LOPDren 9. eta 20. artikulua, ekainaren 11ko 994/1999 Errege Dekretuari, datu pertsonalak dituzten fitxategi automatizatuen segurtasun-neurrien araudia onartzen duenari, buruzkoak).

Horrez gain, Bulegoa politikan parte hartzeko eskubidearen beste ikuspegi batez ere arduratu da, oraingoan herritarrek Udalbatzarretan gertatutakoa ezagutzeko duten ahalmenari dagokiona. Eskainitako irtenbidearen abiapuntua Toki Administrazioaren araudia izan da berriro ere (TAOLEko 18.1 e), 69. eta 70. artikulua, eta AJAko 88., 196. eta 227.etik 230.era arteko artikulua, batez ere), eta ateratako ondorioak honako hauek izan dira:

- Hala eskatzen duten herritarrei korporazioak hartutako akordioen kopiak eta ziurtagiriak emateak ez du urratzen datu pertsonalen babesari buruzko araudia, kopia eta ziurtagiri horietan bereziki babestuta dauden datu pertsonalak agertzen direnean salbu, hau da, LOPDko 7. artikuluan jasota daudenak. Gainerako kasuetan, kopia eta ziurtagiri horietan dauden datu pertsonalen komunikazioa TAOLEko 70.3 artikulua babestuko luke, LOPDeko 11.2a) artikuluan xedatutakoari lotuta.
- Bestalde, gainerako dokumentazioa eskuratzeko aukera, TAOLEko eta AJAko artikuluetan aurreikusitakoa betez, azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 35. eta 37. artikuluetan aurreikusitako erregimen juridikoaren eraginpean dago.
- Hala eskatzen duten herritarrei AJAko 109. artikuluan adierazten den edukiarekin aktaren kopia sinple bat emateak, pertsonen intimitatea ukitzen ez badu, ez du urratzen datu pertsonalak babesteko araudia.
- Aktak jendaurrean eta laburtuta jartzea, horretarako erabilitako baliabidea edozein izanik ere, ez da datuak babesteko araudiaren kontrakoa. Agindu horrek aipatzen duen “laburpenak” egokiak eta neurrizkoak ez diren datu pertsonalak bertatik ezabatzea aholkatzen du, herritarrei informazio “orokorra” eskaintzeko xedez; eta jakina, inolaz ere ez dute barnean hartu behar kontuz erabiltzeko moduko datu pertsonalik.

4.2.2. Txostenak

Atal honetan aintzat hartzen dira:

- Legea garatzen duten ebazpen orokorren proiektuei buruzko txostenak, 2/2004 Legearen 17 h) artikuluan xedatutakoaren arabera, eta
- Nahitaez erantzuteko estatistikak determinatzen dituzten xedapen arautzaileei buruzko txostenak, 2/2004 Legearen 17 h) artikuluan eta DBEBren Estatutua onesten duen urriaren 10eko 309/2005 Dekretuaren 5 a) artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Bulegoaren irizpideari jarraiki, bestelako kontuei buruzko zeinahi txosten, bai fitxategiak sortzearen gaineko ebazpen orokorrei dagozkienak, bai eta datuak babestearekin zuzeneko edo zeharkako lotura izan dezaketen ebazpen orokorrei dagozkienak ere, irizpenen bitartez gorpuztuko dira; irizpen horiek 17 n) artikulua adierazten ditu eta, era berean, 6.2.1. Kontsultak izeneko atalean aipatu dira.

Bulegoan ondoko bi txostenak jaso eta landu dira:

- 2006. urteko Estatistika Programa onartzen duen Dekretu Proiektua.
- 2007. urteko Estatistika Programa onartzen duen Dekretu Proiektua.

4.2.3. Aholkularitzazko bilerak, e-mailez eta telefonoz zein aurrez aurreko kontsulten erantzuna

Geure jarduerari izaera proaktiboa eman nahi izan diogun heinean, Euskadiko Autonomia Erkidegoko administrazioekin hamaika bilera egin eta lan-talde ugari sortu dira. Saio horietan, obligazioen bete-tze formalaz, beren jarduera-eremuari dagozkien egitarau berriei ekiteko burutu beharreko jardueraz aholkua eman zaie, datuak babesteari buruzko araudia eta gainerakoak zintzotasun osoz errespetatu egin dezaten etab.

Beste zentzu batean, oraindik behar bezala egituratutako zerbitzurik ez dagoen arren, e-mailez eta telefono bidez kontsulta asko jasotzen dira eta, jakina, erantzuna berehala ematea da Bulegoaren asmoa.

4.3. Kontrol-funtzioa

4.3.1. Babes-espedienteak

2/2004 Legearen 9.2 artikuluan aurreikusitako babes-eskubidea egikaritzearen ondorio diren espediente hauek adierazten dutenez, erreklamazioa egiten duenari aurkatzeko, eskuratzeko, zuzentzeko eta baliogabetzeko eskubidea egikaritzea ukatu egin zaio.

2006. urtean sei espediente izapidetu dira (horietatik bi, 2005. urtean hasitakoak ziren). Hona hemen azpimarratzekoak direnak:

- Sail batek dituen fitxategiak eskuratzeko eskubidea ukatu izana dela eta, babesa eskatzea.
- Gizarte-politikarako sailek dituzten fitxategietan jasotako datu pertsonalak eskuratu eta baliogabetzeko eskubidea egikaritzea.

Babes-eskubidea sorrarazten duten kontuen ikuspegitik, datu pertsonalak baliogabetzeko berebiziko interesa hautematen da.

Administrazio publikoen aurrean herritarrei zor zaizkion eskuratzeko, zuzentzeko, baliogabetzeko eta aurkatzeko eskubideak egikaritzeko aukera, forma eta baldintzez herritar horren ezagutza urria ez ezik, zailtasun materialak eta, kasuren batean, administrazio horiek datuok emateko unean jarrera desegokirik ere hauteman da. Adiera berean, administrazioek behar bezalako erantzuna ematen ez diotenean eta zor zaizkion eskubideak egikaritzeko, herritarrak DBEBra babes eskean jotzeko aukera daulaka ez daki askotan.

4.3.2. Salaketak

Halakotzat jotzen dira, datu pertsonalak babesteko araudiaren kontrako jardueri dagokienez, pertsona fisiko nahiz juridikoek ezartzen dituzten erreklamazioak.

Bulegoan guztira hogeita bederatzi salaketa jaso dira, eta horietatik bost ebazteko daude.

Aurkezturiko salaketen bidez Bulegoari jakinarazi zaizkion egintzei dagokienez, Legeak urraketatzat harturiko jokabideen berri ematen dute, dela betebeharrak ez betetzearekin (DBEBren erregistroan fitxategiak sortu eta inskribatzea), dela datu pertsonalak arauz kontrako erantzun prozesatzearekin (Bereziki administrazio beraren organoen artean edo administrazio ezberdinetako organoen artean egindako datuen lagapenak, edo administrazioak pertsona pribatu bati datuak lagatzea), dela datu pertsonalak biltzean informazio-printzipioa urratzearekin lotuak.

Beraz, salaketa-egileen kezka larrienek zerikusia izaten jarraitzen dute, bai beren datu pertsonalak fitxategi batean bilduko zirela ez jakitearekin, bai datu horiek lege-babesik gabe laga eta erabiliko ziren ustearekin.

4.3.3. Lege-hausteen espedienteak

Hauek dira 2/2004 Legearen 17 f) eta 24-1 artikuluetan aurreikusitako espedienteak eta legez kontrako jarduerak gertatu diren egiaztatzeko formulatzen dira.

Guztira, honelako bederatzi prozedurari ekin zaie; bederatzietatik lau amaitu dira eta gainerako bostak instrukzio-fasean daude.



5. Idazkaritza Nagusia

5.1. Giza baliabideak

5.1.1. 2006ko aurrekontu-plantilla

Honako aurrekontu-plantilla eratu da:

GOI-KARGUAK / ALTOS CARGOS	DOTAZIO KOPURUA / N. DOTACIONES
ZUZENDARIA / DIRECTOR	1
FUNTZIONARIOAK / FUNCIONARIOS	DOTAZIO KOPURUA / N. DOTACIONES
28. maila / nivel 28	3
26. maila / nivel 26	4
25. maila / nivel 25	2
24. maila / nivel 24	1
23. maila / nivel 23	1
20. maila / nivel 20	1
18. maila / nivel 18	4
GUZTIRA / TOTAL	16

5.1.2. Lanpostuen balorazio-prozesua eta zerrenda.

Urriaren 18ko 309/2005 Dekretuaren bitartez Datuak babesteko Euskal Bulegoaren Estatutua eta, 2005eko azaroaren 28ko Ebazpen bitartez, haren egitura organikoa onartuak izan ondoren, 2006. urtean lanpostuen balorazio-prozesua burutu eta zerrenda onartu zen.

Zentzu horretan, 2006ko otsailaren 7ko Ebazpen bitartez, Zuzendariak lanpostuen monografia-eredua, balorazio-batzordearen osaera, balorazioaren gidaliburua eta lanpostuen zerrenda egitean jarraitu beharreko eredua arautu zituen.

Hizkuntza-eskakizunei eta derrigorrezkotasunei dagokienez, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak aginduzko txostena igorri zuen, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuko 23. artikulua, Euskal Autonomia

Erkidegoko administrazio publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legeko 97.5 artikuluari lotuta, aurreikusten duena betez.

Zegokion balorazio-prozesua burututa, aipatutako Estatutuko 7. artikulua, k) letra eta 15. artikulua betez, DBEBko lanpostuen zerrenda onartu zen, Zuzendariaren 2006ko martxoaren 24ko Ebazpen bitartez, Kontseilu Aholku-emaileak aginduzko txostena, aldekoa, egin ondoren. Zerrenda 2006ko apirilaren 27ko EHAAn argitaratu zen.

5.1.3. Lanpostuak betetzeko deialdiak

Izendapen Askeko deialdia

Datuak Babesteko Euskal Bulegoko idazkari nagusi eta goi-kargudunaren idazkari lanpostuak bete gabe zeuden, funtzionarioek betetzeko gordeta. Lanpostu horiek izendapen askez bete behar ziren. Ondorioz, Zuzendariak, zegokion deialdia egin zuen maiatzaren 31n EHAAn argitaratutako 2006ko maiatzaren 10eko Ebazpenaren bidez.

Bi kasuetan lanpostuak irekita zeuden Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko kidegoentzat eta lurralde historikoetako foru-organoetako antzekoentzat eta, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-administrazioetakoentzat, Eusko Legebiltzarrekoentzat, Herri Kontuen Euskal Epaitegikoentzat, Lan Harremanen Kontseilukoentzat eta, halakorik izanez gero, 2/2004 Legeko 2. artikulua aipatzen dituen beste erakunde batzuetakoentzat.

Aipatutako deialdiaren ondorioz, idazkaritza nagusiaren titularra aukeratu zen eta goi-kargudunaren idazkari-lanpostua bete gabe geratu zen, inork eskatu ez zuelako, EHAAu uztailaren 20an argitaratutako 2006ko ekainaren 28ko Ebazpenen bitartez

Merezimendu bidezko Lehiaketaren deialdia

EHAAu 2006ko ekainaren 30ean argitaratu zen 2006ko maiatzaren 26ko Ebazpen bitartez, lehiaketa espezifiko baten deialdi bateratua egin zen lanpostuak betetzeko, eta lehiaketaren oinarriak onartu ziren.

Deitutako lanpostuak honako hauek izan ziren:

- Administrari orokorra
- Administrari informatikaria
- Kudeaketaren administrari koordinatzailea
- Itzultzaile-Dokumentalista
- Formazio-Informazio-Dokumentazioko teknikaria
- Informatikako auditore ikuskatzailea (amaitutako derrigorrezkotasunarekin)
- Informatikako auditore ikuskatzailea (amaitutako derrigorrezkotasunik gabe)
- Letratu instruktore ikuskatzailea (amaitutako derrigorrezkotasunarekin)
- Letratu instruktore ikuskatzailea (amaitutako derrigorrezkotasunik gabe)
- Arlo juridiko eta ikuskaritzako arduraduna
- Erregistroaren eta teknologia berrien arduraduna

Lehiaketa hainbat fasetan banatu zen eta honako hauek izan ziren baloratutako merezimenduak:

- I. fasea.
 - ✓ Betetako lana.
 - ✓ Titulazioak.
 - ✓ Prestakuntza- eta hobetze-ikastaroak.
 - ✓ Antzintasuna.
 - ✓ Finkatutako gradu pertsonala.
 - ✓ Euskararen ezagutza maila, lanpostua betetzeko nahitaezkoa ez den kasuetan.
 - ✓ Argitalpenak (A taldeko lanpostuetan bakarrik).
 - ✓ Ikerketa- edo irakaskuntza-lana (A taldeko lanpostuetan bakarrik).
 - ✓ Ingelesa, frantsesa edota alemana jakitea.
- II. fasea.
 - ✓ A talderako irekita zeuden lanpostuei, bigarren aldian ezagutza eta trebetasun berariazkoak baloratu zitzaizkien. Horretarako, lanpostuaren eginkizunekin lotutako oroitidazki edo proiektu baten erredakzioa egin behar izan zuten, zeinaren defentsa egin ahal izan zuten Balorazio Batzordearekin izan zuten elkarrizketan. Gainera, Arlo juridikoko eta ikuskaritzako arduraduna-

ren eta Datuak eta teknologia berriak babesteko erregistroko arduradunaren kasuetan, honen aurretik aipatutakoaz gain, jarrerari buruzko elkarriketa egituratua egin zuten.

- ✓ C eta C/D taldeetara irekita dauden lanpostuei, bigarren aldian, ezagutza eta trebetasun berriazkoak baloratu zitzaizkien, Balorzio Batzordearekin elkarriketa bat eginda.

Kasu guztietan lanpostuak irekita zeuden Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko kidegoentzat eta lurralde historikoetako foru-organoetako antzekoentzat eta, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-administrazioetakoentzat, Eusko Legebiltzarrekoentzat, Herri Kontuen Euskal Epaitegikoentzat, Lan Harremanen Kontseilukoentzat eta, halakorik izanez gero, 2/2004 Legeko 2. artikulua aipatzen dituen beste erakunde batzuetakoentzat.

Parte-hartze zabala sustatzeko xedez, EHAAn argitaratzeaz gain, gutunak bidali zitzaizkien Eusko Jaurlaritzako sailetako zerbitzuetako zuzendariari, aldundiei, udalei eta DBEBren eskumena iristen den gainerako erakundeei, ahalik eta hedapen handiena emateko eskatzeko. Halaz ere, aurkeztu zirenen kopurua txikia izan zen, 20 pertsona guztira, eta horietatik bost ez ziren onartuak izan, deialdian ezarritako baldintzak betetzen ez zituztelako.

2006ko azken hilabeteetan fase desberdinak burutu ziren. Lehiaketa Zuzendariaren 2006ko abenduaren 21eko Ebazpen bitartez ebatzi zen eta 2007ko urtarrilaren 15ean argitaratu. Hautatuak 2007ko otsailerako egin ziren karguen jabe.

Ebazpen horretan ondoko lanpostuak behin betiko esleitzeko proposamena onartzen zen.

- Administralari orokorra
- Kudeaketaren administralari koordinatzailea
- Formazio-Informazio-Dokumentazioko Teknikaria
- Arlo juridiko eta ikuskaritzako arduraduna
- Erregistroaren eta teknologia berrien arduraduna

Gainerakoak hutsik geratu ziren.

Zerbitzu-eginkizunen deialdia

Merezimenduen lehiaketa hasita zegoela, izangairik aurkeztu edo onartu gabe geratu ziren lanpostuak zein ziren ezagutzen zenez, lanpostu horiek zerbitzu-eginkizunetan betetzeko deialdi bat egin zen Zuzendariaren urriaren 2ko Ebazpen bitartez:

- Administrari informatikaria
- Informatikako auditore ikuskatzailea
- Letratu instruktore ikuskatzailea

Parte-hartze zabala sustatzeko xedez, EHAAn argitaratzeaz gain, gutunak bidali zitzaizkien Eusko Jaurlaritzako sailetako zerbitzuetako zuzendariei, aldundiei, udalei eta DBEBren eskumena iristen den gainerako erakundeei, ahalik eta hedapen handiena emateko eskatzeko.

Deialdi honen bitartez karrerako hiru funtzionario hautatu ziren zerbitzu-eginkizunetan, hutsik geratu ziren administrari informatikariaren eta informatikako auditore ikuskatzailearen (2 lanpostu hutsik) lanpostuak betetzeko. Haiek 2006ko abenduan egin ziren lanpostuen jabe.

5.1.4. 2006ko ekitaldian lanean jarduten duten langileak

2006ko ekitaldian honako lanpostu hauek egon ziren beteta Bulegoan:

- Idazkari Nagusia, zerbitzu-eginkizunetan eta, izendatu zenetik, izendapen askean.
- Erregistroaren eta teknologia berrien arduraduna, zerbitzu-eginkizunetan urtariletik.
- Arlo juridiko eta ikuskaritzako arduraduna, zerbitzu-eginkizunetan ekainetik.
- Letratu instruktore ikuskatzailea, bitarteko izaerarekin urtariletik.
- Auditore informatikari ikuskatzailea, zerbitzu-eginkizunetan abendutik.
- Formazio, Informazio eta Dokumentazioko teknikaria, zerbitzu-eginkizunetan irailetik.
- Kudeaketaren administrari koordinatzailea, zerbitzu-eginkizunetan urtariletik.
- Goi-kargudunaren idazkaria, zerbitzu-eginkizunetan abendutik.
- Administraria. Obra edo zerbitzu jakin baterako lan-kontratu bat egin zen urte osorako

5.2. Aurrekontuaren, kontabilitatearen eta ondarearen kudeaketa

5.2.1. 2006ko aurrekontua

2/2004 Legearen 13. artikulua ezartzen du Datuak babesteko Euskal Bulegoak urtero-urtero aurrekontu-aurreproiektua egin eta onartu beharko duela. Gero, Eusko Jaurlaritzara bidali beharko du, han, behar bezain ondo bereizita, Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan sar dezaten, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu-sistema arautzen duten legeen arabera.

Prozesua egin ondoren, 2006 ekitaldirako DBEBrentzako onartu den gastuen aurrekontua honako hau da, laburbilduta:

GASTUAREN AZALPEN ETA KONTZEPTUA CONCEPTO Y EXPLICACION DEL GASTO	GUZTIRA TOTAL
1. Kapitulua: Langile Gastuak Capitulo 1: Gastos de Personal	900.086,00
2. Kapitulua: Jarduera Gastuak Capitulo 2: Gastos de Funcionamiento	510.679,00
6. Kapitulua: Inbertsio Errealak Capitulo 6: Inversiones Reales	258.849,00
Gastuak Guztira Total Gastos	1.669.614,00

5.2.2. 2006ko aurrekontuaren exekuzioa

Aurrekontuaren exekuzioa hona hemen xehatuta:

1. 2006ko AURREKONTUAREN KITAPENA							
Q6 Urtea ____							
SARRERAK	Aurrekontua			Aitortutako eskubideak	Kobratetako	Kobratzeko	%gauzatzea
	Hasierakoa	Aldak.	Behin betikoa				
4.- Transf.Diru-laguntza arrunt.	1.407.264,00		1.407.264,00	1.407.264,00	1.407.264,00		100,00%
5.- Ondaresarrerek	3.500,00		3.500,00	34.590,51	11.995,79	22.594,72	988,30%
7.- Transf. eta kapit. Dirulaguntza	258.850,00		258.850,00	258.850,00	258.850,00		100,00%
Guztira 2006/12/31	1.669.614,00		1.669.614,00	1.700.704,51	1.678.109,79	22.594,72	101,86%

____ 2006. urtea							
GASTUAK	Aurrekontua			Aitortutako obligazioak	Ordainketak	Ordaintzeko	%gauzatzea
	Hasierakoa	Aldak.	Behin betikoa				
1.- Pertsonal gastuak	900.086,00	-1.687,50	898.398,50	424.491,56	387.656,18	36.835,38	47,25%
2.- Ondasun erostea eta zerbitzuak	510.679,00		510.679,00	230.994,86	123.252,13	107.742,73	45,23%
6.- Inbertsio errealak	258.849,00		258.849,00	163.450,84	24.575,01	138.875,83	63,15%
8.- Finantza aktiboen aldak.		1.687,50	1.687,50	562,50	562,50		33,33%
Guztira 2006/31	1.669.614,00		1.669.614,00	819.499,76	536.045,82	283.453,94	49,08%

2. ITXITAKO AURREKONTUAK				
	Hasierakoa	Baliogabetzeak	Diruzaintza	Azkena
Itxitako sarrerak				
Itxitako gastuak				

Sarrerei dagokienez, aipatu behar da ondare bidezko sarrerak (bankuko interesen ordainketa) aurrei-kusitakoak baino askoz ere handiagoak izan direla (Eusko Jaurlaritzaren eta kreditu-erakundeen artean sinatutako hitzarmenean ezarritakoaren arabera aplikatutako interesak, alde batetik, eta egin-dako gaineratikoaren gordailu handia, bestetik).

Gastuen exekuzioaz honakoa aipatzea komeni da:

- I. Kapituluaren exekuzioa %47,25 izatearen arrazoia 5.1. atalean azalduta dago: DBEBk 2006aren amaieran hutsik jarraitzen zuten lanpostuak arauz hornitzeko zailtasunak izan ditu.
- II. Kapituluaren exekuzioa %45,23 izatearen arrazoia honetan datza: ohiko administrazio-egitura osoaren funtzionamenduak koste txikiagoa du, hain zuzen, DBEBk oso langile gutxi dituelako.
- VI. Kapituluaren exekuzioa %63,13 –zati handi bat aplikazio informatikoen garapenari dagokio- izatearen arrazoia da, inbertsio haiek egin aurretik, Bulegoko sistemen plan bat amaitu beharra. Plan horrek etorkizunerako irizpide egokiak ezartzea ahalbidetuko digu.

5.2.3. Aurrekontuen kudeaketari buruzko Instrukzio batean lanean

Idazkaritza Nagusian, DBEBrako aurrekontuen, kontabilitatearen, ondarearen eta kontratazioaren kudeaketari buruzko instrukzioaren zirriborroa landu ondoren, Legeak xedatutakoarekin bat etorrira eta DBEB kontrol-agintaritza dela aintzat hartuta, Eusko Jaurlaritzako hainbat Zuzendaritzari bidali zitzairen (Ondarea eta Kontratazioa, Ekonomia Kontrola, Aurrekontuak) azter zezaten. Urtearen amaieran haien txostenak jasotzeko zeuden, behin betiko onartu aurretik.

5.3. Baliabide materialak

5.3.1. Egoitza

2006. urtean, langile guztiak lanean hasi ez direnez, hasieran aurreikusitako espazioaren zati bat bakarrik bete da.

5.3.2. Beste zenbait kontratu txiki

DBEBren funtzionamendua bermatzearren, hainbat kontratu txiki egin dira. Hona hemen garrantzitsuenak:


- lokalak alokatzea
- informatika-ekipoak alokatzea
- fotokopiagailuaren mantentze-lanak
- bulegoko materiala eta informatika-materiala

- prentsa, aldizkariak eta liburuak
- posta-komunikazioak
- informatika-aplikazioen mantentze-lanak eta ustiapena
- argitalpenen edizioa eta banaketa
- altzariak
- ikus-entzunezkoen ekipoak
- informatika-ekipoak
- liburutegietako fondoak

5.4. Idazkaritza Nagusiaren beste zenbait jarduera

Idazkaritza Nagusiak Bulegoaren beste jarduera batzuetan izan duen parte-hartzea aipatu beharrekoa da:

- Jardunaldien prestakuntzan,
- Kontseilu Aholku-emailearen idazkaritzan,
- Erakundearen aurkezpen-plan bat diseinatzen.



6. Kontseilu Aholku-emailea

2/2004 Legearen 14. artikulua aurreikusitakoaren arabera, DBEBren zuzendariaren aholkularitzarako kide anitzeko organoa da Datuen Babeserako Kontseilu Aholku-emailea.

Aurreko urteko osaketa berbera eduki du Kontseilu horrek, baina Lurralde Historikoei 2006. urtean zehar ez dute beren ordezkaria izendatu:

Juan Luis Mázmela Etxebarria jauna	Eusko Legebiltzarraren ordezkaria
José María Endemaño Aróstegui jauna	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako ordezkaria.
Rafael Ibargüen González jauna	Toki Erakundearen ordezkaria
Eduardo Jacob Taquet jauna	Euskal Herriko Unibertsitatea
Iñaki Esparza Leibar jauna	Euskal Herriko Unibertsitatea
Carlos Samaniego Pérez jauna	Lurralde Historikoen ordezkaria

6.1. Egindako bilerak

2006an hiru bilera egin ziren; horietan ondoko gaiak aztertu ziren besteak beste:

2006ko martxoaren 1eko bilera

- Kontseilu Aholku-emailean Lurralde Historikoen ordezkariaren izendapenaren berri ematea.
- Bulegoaren organigrama azaltzea.
- Zuzendariaren Ebazpen Proiektuari, DBEBko lanpostuen zerrenda onartzen duenari buruzko txostena, kontseilu aholku-emaileak egina.
- Kontseilu Aholku-emailearen barne-funtzionamenduaren araudia aztertu eta onartzea.
- Juan Luis Mázmela Etxebarria jauna, urtebeterako Kontseilu Aholku-emailearen Presidente izendatzea.


2006ko uztailaren 7ko bilera

- Bulegoaren eginkizunak eta ikuspegiak zein izan behar duten eztabaidatzea eta DBEBren eta Kontseilu Aholku-emailearen artean gai horri buruz lan egiteko lan-taldea osatzeko beharra ondo-rioztatzea.
- Hainbat gairi buruzko informazioa: lanpostuak betetzeko prozesuak, Bulegoa administrazio desberdinei aurkezteko kanpaina, EHUrekin sinatutako hitzarmena, aurrekontu- eta kontabilitate-kudeaketari buruzko instrukzioa, etab.
- 2006ko oroitidazkiaren aurkezpena

2006ko azaroaren 8ko bilera

- Plangintza Estrategikoa dokumentuan egindako aurrerapenak.
- Egoerari buruzko txostena: udaletan aurkezteko kanpaina instituzionala, jardunaldietan eta topaketetan parte hartzea, hitzarmenen jarraipena.
- Giza Baliabideak: Merezimenduen lehiaketaren garapena, zerbitzu-eginkizunen deialdi berriak.

ERANSKINAK





ERANSKINAK

I. ERANSKINA. Datuak Babesteko Euskal Bulegoa zifratan

AI.1. Datu pertsonalaren Babesaren Erregistroaren zifrak

Erregistroaren bilakaera historikoa

C.1. Mugimenduen eta fitxategien laburpen globala

Urtea	Mugimenduak				Fitxategien egoera (1)	
	Inscrip.	Aldak.	Ezab.	Guztira	Aktiboak	Kendutakoak
1994	464			464	442	22
1995	498	998		1.496	397	101
1996	151	353		504	132	19
1997	135	240		375	126	9
1998	72	80		152	47	25
1999	1			1	1	0
2000	124	20		144	122	2
2001	13	1		14	10	3
2002	130	216		346	115	15
2003	116	287		403	116	0
2004	592	633		1.225	588	4
2005	825	1.261	84	2.170	824	1
2006	535	147	118	800	534	1
Guztira	3.656	4.236	202	8.094	3.454	202

(1) Fitxategi aktiboen eta ezabatutako fitzategien zerrenda, inskripzio urtearen arabera

*Fitxategien Mugimenduei buruzko datuak***C.2. 2006. urtean aitortutako Mugimenduak, erakunde motaren arabera**

Administrazioa	Inscrip.	Aldak.	Ezab.	Mug. guztira.	Saldo garbia
Eusko Jaurlaritza	144	86	76	306	+68
Erakunde autonomikoak	29	1		30	+29
Foru Administrazioa	5	20	2	27	+3
Tokiko Administrazioa	355	40	40	435	+315
Udalez gaineko erakundeak				0	=
Bestelako erakundeak	2			2	+2
Guztira 2006	535	147	118	800	+417

C.3. 2006. urtean Tokiko Administrazioak aitortutako Mugimenduen zehaztapena

Herria	Inscrip.	Aldak.	Ezab.	Mug. guztira.	Saldo garbia
< 500	24			24	+24
500 - 999				0	=
1.000 - 4.999	64	27	14	105	+50
5.000 - 9.999	122	9	16	147	+106
10.000 - 19.999	43		2	45	+41
20.000 - 49.999	102	4	7	113	+95
50.000 - 99.999				0	=
> 100.000			1	1	-1
Guztira 2006	355	40	40	435	+315

Fitxategien Arduradunei buruzko datuak**C.4. Fitxategien arduradun aitortzaileak, Administrazio motaren eta izaera juridikoaren arabera**

Administrazioa	Admin. Organoa	Aut. organoa	Bestelakoak	Guztira 2006
Eusko Jaurlaritza	107	9		116
Erakunde autonomikoak	8			8
Foru Administrazioa	77	5	2	84
Tokiko Administrazioa	602	24	25	651
Udalez gaineko erakundeak			14	14
Bestelako erakundeak		5		5
Total 2006	794	43	41	878

C.5. Erakunde aitortzaileak, Administrazio motaren eta Lurralde Historikoaren arabera

Administrazioa	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guzt. 2006	2005. urtea	Aldakuntza	Δ %
Eusko Jaurlaritza	18		1	19	21	-2	-9,5%
Erakunde autonomikoak	3			3	0	+3	100,0%
Foru Administrazioa	5	5	3	13	13	=	0,0%
Tokiko Administrazioa	37	82	92	211	206	+5	2,4%
Udalez gaineko erakundeak		4	2	6	6	=	0,0%
Bestelako erakundeak	1	3	1	5	4	+1	25,0%
Guztira 2006	64	94	99	257	250	+7	2,8%
2005. urtea	62	90	98	250			
Aldakuntza	+2	+4	+1	+7			
Δ %	3,2%	4,4%	1,0%	2,8%			



C.6. Tokiko erakunde aitortzaileak, populazio-mailaren eta Lurralde Historikoaren arabera

Administrazioa	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guzt. 2006	2005. urtea	Aldakuntza	Δ %
< 500	10	7	12	29	29	=	0,0%
500 - 999	11	9	7	27	25	+2	8,0%
1.000 - 4.999	11	22	14	47	49	-2	-4,1%
5.000 - 9.999	2	13	13	28	26	+2	7,7%
10.000 - 19.999	1	8	23	32	32	=	0,0%
20.000 - 49.999		16	12	28	24	+4	16,7%
50.000 - 99.999		5	4	9	10	-1	-10,0%
> 100.000	2	2	7	11	11	=	0,0%
Guztira 2006	37	82	92	211	206	+5	2,4%
2005. urtea	36	78	92	206			
Aldakuntza	+1	+4	=	+5			
Δ %	2,8%	5,1%	0,0%	2,4%			

C.7. Udal Ez aitortzaileak, populazio-mailaren eta Lurralde Historikoaren arabera

Administrazioa	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guzt. 2006	2005. urtea	Aldakuntza	Δ %
< 500	10	16	12	38	39	-1	-2,6%
500 - 999	1	10	2	13	14	-1	-7,1%
1.000 - 4.999	6	16	10	32	31	+1	3,2%
Guztira 2006	17	42	24	83	84	-1	-1,2%
2005. urtea	17	43	24	84			
Aldakuntza	=	-1	=	-1			
Δ %	0,0%	-2,3%	0,0%	-1,2%			

Inskribatutako fitxategiei buruzko datuak

C.8. Fitxategien urteko saldo garbia (inskribatzeak-ezabatzeak)*C.9. Fitxategi aktiboak inskribatze urtearen arabera*

C.10. Inskribatutako fitxategi kopurua, Administrazio motaren eta Lurralde Historikoaren arabera

Administrazioa	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guzt. 2006	2005. urtea	Aldakuntza	Δ %
Eusko Jaurlaritza	434	70	10	514	446	+68	15,2%
Erakunde autonomikoak	29			29	0	+29	100,0%
Foru Administrazioa	42	76	136	254	251	+3	1,2%
Tokiko Administrazioa	253	1.029	1.335	2.617	2.302	+315	13,7%
Udalez gaineko erakundeak		15	16	31	31	=	0,0%
Bestelako erakundeak	1	6	2	9	7	+2	28,6%
Guztira 2006	759	1.196	1.499	3.454	3.037	+417	13,7%
2005. urtea	624	919	1.494	3.037			
Aldakuntza	135	277	5	417			
Δ %	21,6%	30,1%	0,3%	13,7%			

C.11. Inskribatutako fitxategiak batez beste, Administrazio motaren eta Lurralde Historikoaren arabera

Administrazioa	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guzt. 2006	2005. urtea	Aldakuntza	Δ %
Eusko Jaurlaritza	24,1	0,0	10,0	27,1	21,2	5,8	27,4%
Erakunde autonomikoak	9,7	0,0	0,0	9,7	0,0	9,7	100,0%
Foru Administrazioa	8,4	15,2	45,3	19,5	19,3	0,2	1,2%
Tokiko Administrazioa	6,8	12,5	14,5	12,4	11,2	1,2	11,0%
Udalez gaineko erakundeak	0,0	3,8	8,0	5,2	5,2	0,0	0,0%
Bestelako erakundeak	1,0	2,0	2,0	1,8	1,8	0,1	2,9%
Guztira 2006	11,9	12,7	15,1	13,4	12,1	1,3	10,6%
2005. urtea	10,1	10,2	15,2	12,1			
Aldakuntza	1,8	2,5	-0,1	1,3			
Δ %	17,8%	24,6%	-0,7%	10,6%			

C.12. Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraketa Erakundeek inskribatutako fitxategien kopurua

Sailak	Guztira 2006	Urtea 2005	Aldakuntza	Δ %
Nekazaritza eta Arrantza	61	38	+23	60,5%
Industria, Nekazaritza eta Arrantza		22	-22	-100,0%
Kultura	18	18	=	0,0%
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa	24	24	=	0,0%
Ogasuna eta Herri Administrazioa	47	40	+7	17,5%
Industria, Merkataritza eta Turismoa	37	7	+30	428,6%
Merkataritza, Kontsumo eta Turismoa		12	-12	-100,0%
Herrizaingoa	89	85	+4	4,7%
Justizia, Enplegua eta Gizarte Segurantzak	66	66	=	0,0%
Ingurumena eta Lurralde Antolamendua	20		+20	100,0%
Lurraldearen Antolamendua, Etxebizitza eta Ingurumena		25	-25	-100,0%
Osasuna	70	71	-1	-1,4%
Garraioa eta Herrilanak	19	13	+6	46,2%
Jaurlaritzaren Lehendakariordetza	7	6	+1	16,7%
Etxebizitza eta Gizarte Gaiak	24		+24	100,0%
Eusko Jaurlaritza	3	3	=	0,0%
Eusko Jaurlaritza - Lehendakaritza	7	7	=	0,0%
Erakunde Autonomiadunak				
Eustat – Estatistikako Euskal Erakundea	11	9	+2	22,2%
Ivap – Herri Administrazioaren Euskal Erakundea	11		+11	100,0%
Guztira	514	446	+68	15,2%

C.13. Batzar Nagusiak eta Foru Administrazioak inskribatutako fitxategi kopurua

Sailak	Guztira 2006	Urtea 2005	Aldakuntza	Δ %
Arabako Foru Aldundia	36	36	=	0,0%
Gipuzkoako Foru Aldundia	131	130	+1	0,8%
Bizkaiko Foru Aldundia	71	69	+2	2,9%
Bizkaiko Batzar Nagusiak	5	5	=	0,0%
Gipuzkoako Batzar Nagusiak	5	5	=	0,0%
Arabako Batzar Nagusiak	5	5	=	0,0%
Bat. Nag. eta For. Admin. guztira	253	250	+3	1,2%

C.14. Udalek inskribatutako fitxategi kopurua, populazio-mailaren eta Lurralde Historikoaren arabera 2007ko otsailerako egin ziren karguen jabe.

Administrazioa	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guzt. 2006	2005. urtea	Aldakuntza	Δ %
< 500	30	53	93	176	155	+21	13,5%
500 - 999	44	43	59	146	140	+6	4,3%
1.000 - 4.999	47	170	195	412	370	+42	11,4%
5.000 - 9.999	47	147	271	465	354	+111	31,4%
10.000 - 19.999	14	97	397	508	467	+41	8,8%
20.000 - 49.999		338	170	508	363	+145	39,9%
50.000 - 99.999		23	43	66	116	-50	-43,1%
> 100.000	71	158	107	336	337	-1	-0,3%
T Guztira 2006	253	1.029	1.335	2.617			
2005. urtea5	215	754	1.333	2.302			
Aldakuntza	+38	+275	+2	+315			
Δ %	17,7%	36,5%	0,2%	13,7%			

C.15. Udalek inskribatutako fitxategien kopurua batez beste, populazio-mailaren eta Lurralde Historikoaren arabera

Administrazioa	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guzt. 2006	2005. urtea	Aldakuntza	Δ %
< 500	3,0	7,6	7,8	6,1	5,3	+0,7	13,5%
500 - 999	4,0	4,8	8,4	5,4	5,6	-0,2	-3,4%
1.000 - 4.999	4,3	7,7	13,9	8,8	7,6	+1,2	16,1%
5.000 - 9.999	23,5	11,3	20,8	16,6	13,6	+3,0	22,0%
10.000 - 19.999	14,0	12,1	17,3	15,9	14,6	+1,3	8,8%
20.000 - 49.999	0,0	21,1	14,2	18,1	15,1	+3,0	20,0%
50.000 - 99.999	0,0	4,6	10,8	7,3	11,6	-4,3	-36,8%
> 100.000	35,5	79,0	15,3	30,5	30,6	-0,1	-0,3%
Guztira 2006	6,8	12,5	14,5	12,4			
2005. urtea	6,0	9,7	14,5	11,2			
Aldakuntza	0,9	2,9	0,0	1,2			
Δ %	14,5%	29,8%	0,2%	11,0%			


C.16. Beste erakunde batzuek innskribatutako fitxategi kopurua

Administrazio / Erakunde mota	Guztira 2006	2005. urtea	Aldakuntza	Δ %
Erakunde autonomikoak				
Datuak Babesteko Euskal Bulegoa	9		+9	100,0%
Eusko Legebiltzarra	11		+11	100,0%
Tribunal Vasco de Cuentas Públicas - Herri Kontuen Euskal Epaitegia	9		+9	100,0%
Udalez gaineko erakundeak				
Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoa	7	7	=	0,0%
Bizkaiko Garraio partzuergoa	1	1	=	0,0%
Lea Artibai Udal Mankomunitatea	4	4	=	0,0%
Deba Garaiko Udal Mankomunitatea	7	7	=	0,0%
Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea	3	3	=	0,0%
Urola-Kostako Mankomunitatea	9	9	=	0,0%
Beste erakunde batzuk				
Arabako Merkataritza eta Industriako Ganbera Ofiziala	1	1	=	0,0%
Euskadiko Informatika Ingeniarien Elkargo Ofiziala	1	1	=	0,0%
Bizkaiko Ingeniari Industrialen Elkargo Ofiziala	1	1	=	0,0%
Gipuzkoako Odontologo-Estomatologo Elkarte	2		+2	100,0%
Euskal Herriko unibertsitatea	4	4	=	0,0%
Besteak, guztira	69	38	+31	81,6%

C.17. Inskribatutako fitxategi kopurua, Administrazio motaren eta segurtasun mailaren arabera


Administrazioa	Ez dy aitort.	Oinarrizk.	Ertaina	Altua	Guzt. 2006	Urtea 2005	Aldakuntza	Δ %
Eusko Jaurilaritza	44	301	27	142	514	446	+68	15,2%
Erakunde autonomikoak		22	2	5	29	0	+29	0,0%
Foru Administrazioa	53	65	109	27	254	251	+3	1,2%
Tokiko Administrazioa	927	890	452	348	2617	2.302	+315	13,7%
Udalez gaineko erakundeak	14	12	2	3	31	31	=	0,0%
Bestelako erakundeak	4	3	1	1	9	7	+2	28,6%
Guztira 2006	1.042	1.293	593	526	3.454	3.037	417	13,7%
2005. urtea	1.174	962	486	415	3.037			
Aldakuntza	-132	331	107	111	417			
Δ %	-11,2%	34,4%	22,0%	26,7%	13,7%			

C.18. Inskribatutako fitxategi kopuruaren denbora-banaketa, segurtasun-mailaren arabera



C.19. Ezabatutako fitxategi kopurua, administrazio motaren eta Lurralde Historikoaren arabera

Administrazioa	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guzt. 2006	2005. urtea	Aldakuntza	Δ %
Eusko Jaurlaritza	118		2	120	44	+76	172,7%
Foru Administrazioa		1	1	2		+2	0,0%
Tokiko Administrazioa	3	63	14	80	40	+40	100,0%
Guztira 2006	121	64	17	202	84	+118	140,5%
2005. urtea	42	27	15	84			
Aldakuntza	79	37	2	118			
Δ %	188,1%	137,0%	13,3%	140,5%			

C.20. Ezabatutako fitxategien banaketa urtez urte, inskripzio urtearen arabera

AI.2. Lege-aholkularitzako eta Ikuskaritzako Unitateari dagozkion zifrak**Kontsulta eta txostenei buruzko datuak****C.21. 2006. urtean jasotako eskaerak, eskatzaile motaren arabera**

Tipologia	Administrazioa	Kopuruaro
EAEko Administrazio Orokorra	Ogasuna eta Herri Administrazio Sailer	1
	Osasun Sailer	1
	Herrizaingoa	1
	Justizia Sailer	1
	Hezkuntza Sailer	3
	Etxebizitza eta Gizarte Gaiak Sailer	2
Batzar Nagusiak, Foru Administrazioa eta Tokiko Administrazioa	Vitoria-Gasteizko Udala	1
	Maruriko Udala	1
	Iruña Okako Udala	2
	Donemiliagako Udala	1
	Donostiako Udala	1
	Sondikako Udala	1
	Eibarko Udala	1
	Muruako Kontzejua	1
	Arabako Foru Aldundia	2
	Bizkaiko Foru Aldundia	4
	Gipuzkoako Batzar Nagusiak	1
Erakundeak	OSAKIDETZA	1
	EUSTAT	2
Elkargoak eta bestelako erakundeak	Bizkaiko Abokatuen Elkargoa	1
	Gipuzkoako Abokatuen Elkargoa	1
	Bizkaiko Medikuen Elkargoa	1
	Haurreskolak PArtzuergoa	1
	Donostiako Sustapena	1
Pertsona fisikoak		2
ESKAERAK, GUZTIRA		35

C.22. 2006. urtean ebatzitako eskaera kopurua

2006. urtean jasotako eskaerak	35
2005. urtean ebatzitako eskaerak	5
2006. urtean ebatzitako eskaerak	26
Guztira	31

C.23. 2006. urtean eskatutako eta jaulkitako txosten kopurua

Eskatutako eta jaulkitako txostenak	2
-------------------------------------	---

Kontrol lanari buruzko datuak**C.24. 2006an gauzatutako tutela-eskubide kopurua**

2006an eskatutako tutelak	4
2005ean ebatzitako tutelak	2
2006an jasotako eta ebatzitako tutelak	4
Guztira	6

C.25. 2006. urteko salaketak kopurua

Hartutako salaketak	29
2006an aurkeztutako salaketak	19
2005ean ebatzitako salaketak	3
2006an ebatzitako salaketak	14
Ebatzitako salaketak, guztira	17

C.27. 2006ko lege-hauste prozedura kopurua

Hasitako lege-hauste prozedurak	9
2006an hasitako prozedurak	9
2005ean ebatzitako prozedurak	4
2006an ebatzitako prozedurak	4
Ebatzitakoak, guztira	8

AI.3. Cifras relativas a la Secretaría General

Aurrekontua gauzatzeari buruzko datuak

C.28. 2006ko aurrekontuaren kitapena

1. 2006ko AURREKONTUAREN KITAPENA							
SARRERAK	Aurrekontua			Q6 Urtea ____			
	Hasierakoa	Aldak.	Behin betikoa	Aitortutako eskubideak	Kobraketak	Kobratzeko	%gauzatzea
4.- Transf.Diru-laguntza arrunt.	1.407.264,00		1.407.264,00	1.407.264,00	1.407.264,00		100,00%
5.- Ondaresarrera	3.500,00		3.500,00	34.590,51	11.995,79	22.594,72	988,30%
7.- Transf. eta kapit. Diru-laguntza	258.850,00		258.850,00	258.850,00	258.850,00		100,00%
Guztira 2006/12/31	1.669.614,00		1.669.614,00	1.700.704,51	1.678.109,79	22.594,72	101,86%

____ 2006. urtea							
GASTUAK	Aurrekontua			Aitortutako obligazioak	Ordainketak		%gauzatzea
	Hasierakoa	Aldak.	Behin betikoa		Ordainketak	Ordaintzeko	
1.- Pertsonal gasrtuak	900.086,00	-1.687,50	898.398,50	424.491,56	387.656,18	36.835,38	47,25%
2.- Ondasunak erostea eta zerbitzuak	510.679,00		510.679,00	230.994,86	123.252,13	107.742,73	45,23%
6.- Inbertsio errealak	258.849,00		258.849,00	163.450,84	24.575,01	138.875,83	63,15%
8.- Finantza aktiboen aldak.		1.687,50	1.687,50	562,50	562,50		33,33%
Guztira 2006/31	1.669.614,00		1.669.614,00	819.499,76	536.045,82	283.453,94	49,08%

2.ITXITAKO AURREKONTUAK				
	Hasierakoa	Baliogabetzeak	Diruzaintza	Azkena
Itxitako sarrerak				
Itxitako gastuak				

C.29. 2006ko galeren eta irabazien kontua

GASTUAK	2006	2005	SARRERAK	2006	2005
100.00 Goi-karguak	66.977,40		450 Administrazioari transt. arruntak	1.407.264,00	924.786,00
120.00 Funtzionar.	257.799,14	234.225,32			
131.00 Lan-kontratud.	27.530,72		520 Banku kontuetako interesak	34.590,51	456,03
160.00 Gizarte- kotizazioak	63.639,31	43.474,56			
161.11 Pentsio-planak	5.284,40	2.579,37	750 Administrazioari kapital transferentz.	258.850,00	236.442,00
162.01 Prestakuntza gizarte / planak	2.575,94	298,00			
162.21 Beste gizarte-gastuak- Bizitza aseg.	684,65		779 Obligazioak deuseztatzea	167,74	
212.00 Lokalen alokairua	82.120,82	83.533,47			
215.01 Informatika ekipoen alokairua	7.085,01				
222.00 Eraikinak mantentzea	1.387,67	670,12			
223.01 Instalazioak konpondu eta mantentzea	6.505,73				
223.21 Tresn.	570,00				
224.00 Altzariak konpondu eta mantentzea	3.492,61	921,25			
224.01 landare eta lorategiak mantentzea	110,20				
233.00 garraioak	709,38	1.216,28			
236.01 Publizitatea eta harreman publ.	1.232,53	29.137,55			
236.11 protokoloa	1.294,25	802,76			
238.01 Bulego eta informat. materiala	8.667,02	14.123,95			
238.02 prentsa, aldizk eta lib.	3.071,37	424,24			
238.11 garbiketa		1.641,09			
238.31 Lokomozioa eta egonaldiak	14.388,99	12.786,37			
238.51 telefonoa	981,51				
238.55 posta komunikazioa	3.171,03	1.407,69			
238.56 mezularitza	640,59	83,10			
238.61 infor. aplik . Manten. eta konpon.	83.077,76	29.470,32			
238.S1 argitalpenak	9.929,72	8.566,63			
238.bilerak, hitzaldiak, ikastaroak		2.471,16			
238.99 beste zerbitz.	2.558,67	3.522,66			
296.00 beste enpresa batzuek egindakoak		1.623,20			
Amortizazio zuzkid.	55.471,15	4.183,73			
Gastuak:	710.957,57	477.162,82	Sarrerak	1.700.872,25	1.161.684,03
			Ondare-emaitza	989.914,68	684.521,21

C.30. 2006ko ibilgetua

	___06 alend___		___06 urtea___			___Dia. 06___			
	Gord	Amort.	Garbia	Eroak.	Bajak	Amort.	Bruto	Amort.	Neto
Instalazioak									
Informatika aplikazioak	146.190,06	438,66	146.751,49	140.106,60	-	37.330,44	286.296,66	37.769,00	248.627,66
Egoitzeko siltak	96.696,26	1.632,23	93.964,03	12.397,98	-	16.013,87	107.994,19	16.646,10	91.348,09
Egoitzeko inform. ekipak	2.897,99	-	2.897,99	3.697,00	-	724,60	6.494,99	724,60	6.770,49
Egoitz. bu. elpeak	16.766,23	2.113,00	13.643,23	2.343,00	-	2.402,34	18.098,23	4.616,34	13.688,89
Bibliografia funtsak	-	-	-	6.006,80	-	-	6.006,80	-	6.006,80
Guzt	260.440,63	4.183,79	266.266,74	163.450,23	-	66.471,16	423.890,76	69.664,94	364.236,82

C.31. 2006ko aurrekontu plantilla

Las dotaciones y niveles que se señalan a fecha 31/12/2006, son los correspondientes a la RPT que fué aprobada en el mes de mayo/06.

	____ Dic. 05 ____		_Variación_	____ Dic. 06 ____		
	Dotación	Real		Dotación	Real	
ALTOS CARGOS						
Director	1	1		1	1	
FUNCIONARIOS						
Nivel 28	2	2		3	3	
Nivel 27	1					
Nivel 26	1			4	1	
Nivel 25	1			2	2	
Nivel 24	2	1		1	1	
Nivel 23	3			1		
Nivel 21	1					
Nivel 20	2	1		1	1	
Nivel 18	1	1		4	3	*
Nivel 16	2					
TOTAL	17	6		17	12	

*incluido contrato laboral de obra o servicio determinado

II. ERANSKINA. 2006. urtera arte egindako txosten eta irizpen garrantzitsuenak

2005. URTEA

AUZITEGI GORENEAN JARRITAKO KASAZIO-ERREKURTSO BATEKO ALDERDIEN IDENTITATEARI BURUZKO DATUAK SINDIKATUEI LAGATZEA.

LANKIDETZA-HITZARMEN BATEN ONDORIOZ, ERAKUNDE PRIBATU BATEN HISTORIA KLINIKOAK OSAKIDETZARI EMATEA.

AUZITEGI NAGUSIAK ESKATUTA, POLIZIAREN FITXATEGIETAKO DATU PERTSONALAK AGIRIFROGA GISA LAGATZEA

GENERO-INDARKERIAREN KONTRAKO BORROKARAKO LANKIDETZAKO PROTOKOLOAN AURREIKUSITAKOAREN ARABERA GIZARTE-ZERBITZUEN ETA POLIZIAREN ARTEAN DATUAK LAGATZEAN 15/1999 LEGE ORGANIKOA BETETZEA

PARTIKULAR BATI ALDUNDI BATEK OFUNTZIONARIO PUBLIKOEN ORDAINSARIEI BURUZKO DATUAK LAGATZEKO AUKERA

UDAL BATEKO APARKALEKU-ZAINTZAILEEK EGITEN DITUZTEN SALAKETETAN NAHITAEZ BEREN DATU PERTSONALAK JASO BEHAR IZATEA.

HABE-K SAIL BATI EUSKARAKO IKASTAROETARA JOATEN DIRENEN BERTARATZEARI ETA AURRERAPENEI BURUZKO DATUAK LAGATZEA.

UDAL ERROLDAKO DATUAK ERABILI AHAL IZATEA UDALEAN HUTSIK DAUDEN ETXEBIZITZEN JABEEI IDAZKI BANA BIDALTZEKO, ETA ONDOREN EUSKO JAURLARITZARI LAGATZEA DATU HORIEK

UDAL BATEKO DEPARTAMENTU DESBERDINETAKO DATU PERTSONALAK BERE UDALKIDEEI LAGATZEA.

ERROLDAKO DATUAK LAGATZEA EUSKO JAURLARITZAREN SAIL BATI, ONDOREN ERAKUNDE PRIBATU BATI EMATEKO

2006. URTEA

ELKARGOKIDEEN DATUAK LAGATZEA EUSTATI

UDAL BATEKO AKTA ETA DEKRETUAK DATUEN BABESARI BURUZKO ARAUDIRA EGOKITZEA
ERROLDAREN DATUAK HERRI IKASTETXE BATI LAGATZEA

UDAL BATEK DATUAK LAGATZEA BERE ADMINISTRAZIO BATZARRETAKO BATI

HILOTZEN SANITATEARI BURUZKO KONTUAK

UDALAREN WEB ORRIAN OSOKO BILKUREN ETA UDALBATZAKO BATZORDEEN AKTAK ARGITARATZEA

2/2004 LEGEAREN 2. XEDAPEN GEHIGARRIARI ERREFERENTZIA EGITEN DION FITXATEGIKO DATUEN LAGAPENA

LANGILEEN JAIOTZA-DATA HAUTESKUNDE SINDIKALETARAKO HAUTESLEEN ERROLDAN SARTZEA

OHARRAK:

Txosten hauek pdf formatuan aurkitzen dira web orri honetan: www.avpd.es

